

Zazpi Egandean



Zazpi Igandeak G.—1.



JOSE SANTUAREN

ZAZPI IGANDEAK



ELIZ GUZIAREN BITARTEKO

— JOSE SANTUA —

LAGUN GAITZATZU.

— — —

M. 70406
F. 74361

AV
31337

ABERATS ETA BEAR'TSUAK

ATOZTE GUZIOK

Jose santu zoriontsuaren

oñetara,

onen ontasun eta erukiaren bila

BERE

ZAZPI IGANDEAK

EGIN OI DIRAN GARAYAN

EDO

zazpi igande oek bear' bezela egiteko

Menan eta Garibai'tar' Arturo

Abak,

**Maria'ren Biotz garbiaren Seme
Misiolariak kristauai eskeintzen dien
erderaz argitaratutako**

ESKU-LIBURUA

eta Apaiz euskaldun batek euskeratua.



Tolosa'n: E. Lopez'enean, 1924'garen urtean.

E. Lopez egilearena da.



Obispado de Vitoria


Por las presentes damos nuestra licencia y autorización al impresor de Tolosa D. Eusebio López, para que pueda editar la versión al bascuence de los siete Domingos de san José, obra escrita en español por el Rdo. P. Arturo Menan, Sacerdote de la Congregación de Misioneros Hijos del I. C. de María, cuya versión se ha hecho bajo el título "*Aberats eta beartsuak*" o mejor "*Zazpi Igan-deak*", toda vez que a juicio del censor nada se encuentra en ella que se oponga a la fe ni a la moral católica.


Vitoria 1.º de Octubre de 1906.

† JOSÉ, *Obispo de Vitoria.*

Sr. D. Eusebio López.

TOLOSA.





ELIZ GUZIAREN ZAINZALE

TA MARIA BIRJIÑAREN SENAR

JOSE SANTU

guziz zoriontsuaren izenez zazpi igande
oetan egin bear' dana.

— .. —
LENENGO IGANDEA

—
ASIERAKO OTOITZA.


Jesus guziz gozo
ta maitagaría! Lo-
tsaturik nágo zure
auréan, egin dizki-
datzun laguntzak eta
izan didazun erukia
gogoratzean, baita
ere oyei ondo eran-

tzun beaŕean, nik
egin ditudan pekatu
ta eskeŕgabekeri
ugari ta ikaragaŕia-
katik. Nitzaz eŕuki
zaiteala eskatzen di-
zut. Barkapenik ira-
bazi ez dedala aitoŕ
det: nere gaiztake-
rien ezaguerak, dau-
kadan zure naitasu-
netik atsekabetuta
uŕutiratzen nau; ba-
ña, Jauna, gogora
ezazu zerori zerala
ardi galduaren on-
doren dijoan artzai
eŕukitsua. Zu zera

seme galduari bere
gaiztakeriak barka-
tu ta pozezko negar-
ez bera laztantzen
duan Aita biguña; ar-
nazazu bada, zure
oñetara damaturik
natoñenezkero.

Eta zuk, nere la-
guntzale Jose guziz
zoriontsua, iritxi zai-
dazu pekatu guzien
barkapena, nere ani-
ma garbitu eta edeñ-
turik Jainkoaren ar-
gi ongaría bear be-
zela artzen jakin de-
zadan, eta zure la-

guntzaz eta zure i-
kasbidien argiz iri-
txi dezadan, zure go-
rapenera eskeintzen
ditudan zazpi igande
oetan, nere asmo,
gogo ta egipen gu-
ziak, neke ta atseka-
bietan eramankizu-
na izatea, eta emen-
go bizitz labur one-
tako on-aldietan bio-
tza oen aldera ez
ipintzea. Alaxen.



GOGORALDIAK.

APALTASUNA POZTURIK.

*Lenengo gogoraldia.**—Gogora eza-
zu, Jose ta Maria ez-
kondu ta ondoren-
go lenengo egune-
tan poz eta atsegin
gozoan bizi izan zi-
rala. [Beren etxe-
txoa, Nazaret'eko

* Batzuek onela ezezago egiten dituzte-
lako gogoraldi oek luze-antzean ipintzen
ditugu; bañan luzetxoa ere izatea gerta
ditekenezkero, batez ere elizan alkatirik
egiten diranerako, onelako [] bi arayen
tar-tean sartuko degu irakurri gabe utzi
ditekeana, bear dan neurrian onela gelditu
dedin guzia.

beste etxien antzera,
mendi baten oñean
zegoen, gure Salba-
tzalea, geroago, zer-
uko argiz inguratu-
rik ikusiko zan Ta-
bor-mendiaren ur-
ean. Mendi onek
izango zuan argita-
sunak, ango zeru
guziz edeñak, eta
besterik ez bezelako
ango ur ain guri ta
gozatsuak ez dirudi
ematen digutela se-
nañ-emazte aingeru-
tañ aen arteko pake
gozoaren itzaltxo

bat baizik...] Bañan egun batean ilunduzan Jose'ren bekoki alaya [eta bere begirune lañi ta kezka-tsuan, ikusten zitzaion argiro anima-ko atsekabe andia]. Atsekabe onek iraun zion zerbaitean, eta azkenik a'razo zion bere animan ekaitz izugañi bat; soñtu zion bere emaztea ixil-ixilikuztera bea'rtzen zuan burutatze bat... Zer ote zuan Santu onek bada,

bere biotzarentzat
ain gogoña zan bur-
utatze au artzeko? a!
[erantzuten du Ber-
nardo santuak: «Jo-
»se'k erabaki du bere
»emazte Birjiña mai-
»tagaia uztea, Pe-
»dro'k bere Irakasle
»Jesus beregandikal-
»dentzeko izan zua-
»nagatik esan zio-
»nean: *Aldendu zaitte*
»*nigandik, Jauna,*
»*gizon pekatari bat*
»*naiz-ta.. Zenturio-*
»nek bere etxean Je-
sus ez sartzeko iru-

ditu zitzayonagatik:
»Jauna, zu nere e-
»txean sartzea ez
»naiz gai.. esan zio-
»nean: alaxe Jose'k,
»bere burua pekata-
»ritzat zeukalarik,
»ta bere emaztearen
»jabe izateko gai e-
»tzala buruan artuaz,
»esaten du bere ba-
»renen, ezin dite-
»keala bera geyago
»bizi, ume ain aundi
»ta goi batek onen
»zintzotasun mira-
»garia beldur santu
»batez betetzen dua-

»lako.» Egiki «Jose deunak, dio Ilario santuak, ezagutu zuan Maria'gan, dizdiatzen zuan zeruko argi-eráñu baten bitartez onen sa-belean Jainkoaren Semea gizon egin zala, eta apaltasun ta begirapenez, dio Tomas santuak, emakume ain arigarí arekin etzuala bizi nai...»

Gogoan artu zazu egiñik gu Jaungoikoaren seme, Jesu-

kristo'ren anai, ta bere zoriaren jabe, guziz bidezkoa izango litzakela gure egunak Jainkoaren ontasuna goratzen igarotzea, eta geren ezerezean makurtzea, egin zaigun laguntz aundi au gogoratzean; baña laguntz aundi au ezagutu bea'rean, ez bakarrik ez degu ezagutzen ta maitatzen, baizik begiratuaz, azaletik bedere, kristaurik geyenak, di-

ruditenez, beren biotzean dauzkaten gogoak, arkitzen degu ondasunen ta izenen egañi aundi bat, |ez egiz ondasun ta izena animaren onerako izan oi diran er-
an, baizik oso bestera, aberastasun ta izen artean jayo ta bizi diranenganako bekaizkeri ta goñotoa gizonen biotzetara eramán oi dutenena.

Baita ere arkitzen degu geron gaitz-al-

dietan inoren ona
ikustez aseretzen
gaituan, eta kristau-
ari dagokion era-
mankizuna kentzen
duan iluntasun eta
iraña, eta biotzera
lotsagabekeria taez-
pañetara Jainkoaren
kaltea dakartzkigun
izate beldurgarri bat.]

Aita guziz zorion-
tsua! Argi zaizkigu-
tzu animako begiak
ezagutu dezagun
kristau ta Jainkoar-
en seme izateak egi-
ten digun esker ber-

ezia, eta luñeko joan-
-etoñ guziak, zuk be-
zela, alde batera u-
tzirik, bai atsekabe
ta bai atsegin aldie-
tan, bizi gaitezzen nai-
tasun ta esker onez
beterik, ainbeste la-
guntz egin digun
Jainko; esal-al baño
obea dan arganako.

*Bigaren gogoral-
dia.*—Jaunaren Goi-
aingerua — esaten
digu Ebanjelioak—
agertu zitzayon Jo-
se'ri lotan zegoala,
ta esan zion: «Jose,

David'en semea, ez
belduritu...;» eta alde-
gin zuanean, Jose'
ren biotz atsekabe-
tua alaitu zan...

Gogora zazu ba-
da, gizonari luñean
soñtu oi zaizkion sa-
mintasun ta atseka-
beakezerezteko gau-
za beaña dala gure
adimen ilundua ar-
gitu, eta pekatuak
argaldu duen gure
biotza indartzeko
Jainkoaren bañengo
deya.

Sañ zaite bada,

beragatik zure bafe-
nen, eta erabaki e-
zazu, zure atseka-
bientzat beste sen-
dagairik eta beste
zuzenbiderik ez bi-
latzea: adi zazu zin-
tzotasunez, eta poz-
tu zaitte Jose santu
Aingeru on emale,
eta zure anima atse-
kabetuaren babes
danaren ikasbidie-
tan arkituko dituzun
dei gozo ta erakus-
taldi edereetan, luñ-
eko zure bizitza,
amets bat dan onek

diraUAN bitartean
(gure bizitza laister
igaroko dan amets
bat beste gauzik ez
dalako) ta onetara-
ko ar itzatzu ondoen
dagozkitzun asmo
sendoak; eta eska
zayozu bere ontasu-
nari asmo oek bete-
tzeko bea' dezun la-
guntza baita zure ta
bestien bearen sen-
dagaya, ta batez ere
Zazpi Igande oetan
iritxi nai zendukean
laguntza.

Egin bedi emen geldiune txiki

*bat, Aita Jose santuari iritxi nai
diran eskerak eskatuaz; gero esan-
go da:*

Eskatu ditugun es-
kerak, eta eriotzan
ta bizitzan bearko
ditugun besteak iris-
teko, lagunduko dio-
gu Jose santuari be-
re zazpi atsekabe ta
atsegiñik aundiene-
tan biotz guziz esa-
naz:

I.

Jose zoriontsu,
Maria txit santuaren
senar guziz garbia!

zurre emazte garbia
utzita zer egin etze-
nikizula arkitu ziña-
nean, zurre biotzaren
atsekabe ta samín-
tasuna aundia izan
zan bezela, alaxen
izan zan ere esan
eziñalako aundia zu-
reatsegiña Jainkoar-
en semea Maria'ren
sabel garbian gizon
egin zala Aingeruak
adierazi zizunean.

Zurre naigabe ta
atsegin onegatik es-
katzen dizugu, la-
gun dezazula gure

anima orain ta az-
keneko atsekabietan
Jesus ta Mariaren
erdian zure antzera
egindako bizitza on
eta oriotz santu ba-
ten bitartez. *Aita*
gurea, Agur Mari
ta Gloria.

II.

Jainko seme gi-
zonduaren Aita or-
dekotzat guzien ar-
tean autatua izan
ziñan zorioneko Jo-
se zoriontsua! Jesus
aura ain beartasun

aundian jayotzen ikusteak eman zizun atsekabea, biurtu zan zeruko pozetan, aingeruen kantua entzunaz, gau ain eder artako zoriona ikustean.

Zure naigabe ta atsegin onegatik eskatzen dizut, iritxi zaiguzula bizitz onen ondoren Aingeruen gorapenak aditzeko, ta zeruko zorionen edertasuna gozatzeko eskeña. *Aita gurea...*

III.

Jainkoaren aginduak beti bete izan dituzun Jose santu zorientzua! Jainko-aur' Erosleak Bile-baiketan. ixuri zuan odolak erdibitu zizun biotza, baña Jesus'en izen gozoak pozez beteaz sendotua arkitu zihan.

Zure naigabe ta atsegin onegatik iguzu gaizkeri guziak gugandik kenduaz, Jesus'en izen

guziz deuna biotz eta aboan degula, pozez beterik iltzeko laguntza. *Aita gurea...*

IV.

Jose santu zoriontsu ta guziz zintzoa! Simeon'ek Jesus eta Maria'ri zeto'rzkien eramankizunaz itze-gin zizunean iltzeko zorian ja'ri ba'ziñun, beraren aoz eramankizun oetatik anima askoren piztuera eto'riko zala aditzeak

zorioneko atsegin batez, bete ziñan.

Zure atsekabe ta atsegin onegatik, ar gaitzatzu Jesus'en lanez ta Maria'en bitartekotasunez zorionez beterik piztuko diran aen artean. *Aita gurea...*

v.

Jose zoriontsu, Jainko-Seme gizonduaren zaitzale ernaya, eta beraren uste on guziko bizi-laguna! Zenbat e-

tzenduan eramán
Jainkoaren Semea-
gatik, batez ere Ejipto'
ra iges-egin bea-
rian zenduanean!
Bañan zenbat ere
etziñan poztu, beti
zurekin zeukazula
Jainko bera, gezu-
ezko Jainko-iduriak
Ejipto'n luñera eror-
tzen ikusiaz!

Zure naigabe ta
atsegin onen izenez
gugandik etsaya ur-
utiratzeko laguntza
iritxi zaiguzu, batez
ere pekaturako bide

guztietatik iges egi-
ten degula gure bio-
tzetatik luñeko gau-
zetarako zaletasun
gaizto guzia alden-
du dedin, eta Jesus
ta Maria laguntzen
luñeko egunakigaroz-
az, oentzat bakarrik
bizi ta zorionean il
gaitezen. *Aita gu-
rea...*

VI.

Zeruko Eñegea
zure mende ikustea
irabazi izan zenduan
Jose zoriontsu luñe-

ko Aingerua! Baldin zure atsegiña, Ejipto'tik biurtzean, samindu ba-zuan Arkelao'ren beldurak, ala ere bizi izan zianan Nazaret'en pozez beterik Aingeruaren esanak beldurura guzia kenduta.

Zure naigabe ta atsegin onen izenez iritxi zaiguzu laguntza, gure biotzetatik bildur kaltegarriak kenduta, eta Jesus eta Maria'rekin beti biziaz, azkeneko ga-

rayan berak lagundu degiguten. *Aitagurea...*

VII.

Zuzentasun guziaren azalkai zeran Jose zoriontsua! Jainko-Aurá galduta nagabe aundiagoa izan zezazun iru egunez bere bila ibili bear izan zinan; eta zure bizitza zan aurá zure biotzeko pozik aundienaz eliz santuan arkitu zenduan, ango Irakasle artean

gozoro ikusiaz.

Zure naigabe eta atsegin oen oroipe-
nez, gure biotzen ba-
řendik eskatzen di-
zugu, pekatu larřiz Je-
sus beñere ez gal-
tzeko laguntza zure
bitartekotasunez iri-
txi degiguzula, eta
gure zorigaiztoz gal-
duko ba'gendu, bila
joateko atsekaberik
aundienaz, arkitu de-
zagun adizkide, ba-
tez ere eriotz-gara-
yan beraz atsegin •
izatera zeruan eldu

gaitean Jainkozko bere erukiak betikotasun guzian an zurekin batean izateko. *Aita gurea...*

ANTIPH. Ipse Jesus erat incipiens quasi annorum triginta, ut putabatur Filius Joseph.

Ÿ. Ora pro nobis, sancte Joseph.

R). Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS.

Deus, qui ineffabi-

li providentia, beatum Joseph sanctissimæ Genitricis tuæ Sponsum eligere dignatus es; præsta quæsumus, ut quem protectorem veneramur in terris, intercessorem habere mereamur in cœlis. Qui vivis et regnas in sæcula sæculorum, R). Amen. ^(a)

(a) Gauza jakiña da, ardura aundiak ipiñi beaf dirala, iñork aldatu ez ditzan bere buruz danik eta gutxienean ere, barkapenak emanik dauden otoitzak eta onegatik kristau guziak irabazi ditzaten zazpi naigabe ta atsegiñak

erezatzeagatik emanik dauden barkapenak, aldatu degu aurretik aundienaz, naigabe ta atsegin oek zeuzkan egizko liburu-latiñetik gaztelanira Erroma'n biuritu ta argitaratua 1870'gafen urtean *Propaganda Fide* deritzayon kongregazio edo bileraren irakolan liburu batzuetan arkitzen diran beste zenbait eskaera alde batera utziaz.

Esan diran zazpi naigabe ta atsegin oyei emanik dauden barkapenak adierazten dituan ofialdiaren zatia eskaera oen ondoren liburu artan dago: eta itzez-itzez aldaturik, ona zer dion:

«Aita Santu VII'gafen Pio'k 1819'gafen urteko Abenduaren 9'ko agintzidazki batek, len esan dan otoitz ori, biotz damutuaz, egi ten duten kristau guziaz agintzen dizkate:

«*Irureun urteko barkapenak* urteko asteazken guzietan eta Jose santuaren bi jayegunen aurretikako bederatziurenen egun bakoitzean. Jayegun oek dira: bat aundiena, Jose Santuaren eguna (Martxo'ko 19'an) eta bestea bere zaindarita-

sunekoa, Paskotik irugañen igandean.

«*Barkapen osoa* bi jayegun oetan egiz damutu, aitoñtu ta jauna añturik, esan diran otoitzak egiten dituzten guziaz.

«*Barkapen osoa* ilean bein, egunero il guzian eñezaturik, beañ dan damuz aitoñtu ta Jauna añtzen diran egunean.

«XVI'gañen Gregorio Aita Santu 1836'gañen urteko Ilbeltzaren 22'an eman zuan Barkapenen Bilerak agintzidazkiaz, agintzen die, urteko igandietatik, nor berak nai dituan zazpi jañaituetan, otoitz oek biotz damutuz eñezatuaz, irabazi ditzatekela:

«*Irureun urteko barkapenak* lenbiziko sei igandietako bakoitzean.

«*Barkapen osoa* zazpigañen igandean, beañ dan damuz aitoñtzen ba-dira ta Jauna añtzen ba-dute.

«IX'gañen Pio Aita Santuak 1847'gañen urteko Otsailaren lenengo egunean emandako Barkapena Bilera agintzidazkiz len esan diran barkapenak ontzaz emanaz

gañera, geitzen zuan:

«*Barkapen oso bat* nork berak urte bañenean aukeratzen dituan zazpi igande jasaituetako bakoitzean, baldin auzez ezezaturik otoitz aek, zinez damutu, aitortuta Jauna asturik, bisitatzen badute eliz edo elizatxo bat, bertan Aita Santuaren gogora zerbait igaroaz efegutzen.

«Aita Santu onek berak 1847' gasen urteko Martxoaren 22'an eman zuan Barkapenen Bilerak Aginduaz erabaki zuan esan diran zazpi igandetako bakoitzean irabazi lezatekela ere barkapen oso ori irakurtzen ezakitenak gogo auagirian egiten ez dan tokietan bizi ba-dira, ezezatuaz igande bakoitzean otoiz aen orde z zazpi aldiz *Aita gure, Agur Mari ta Gloria*, eta gañerakoak beteaz. (Len esan dan latinetik gaztelanira Efoma'n biurtutako liburuan 293'tik 298'ra-ko ofialdietan.)



Olatu artean galtzeko zorian.

Ipań-aldeko itxas-
-aldietan zijoan egun
batez ontzi bat giro
ederean: baña ontan
jaikitzen da berea-
lako ekaitz gogoń
bat, eta ondoratzen
da ontzia bertan zi-
joazen irureun lagu-
nekin. Negargariz-
ko gertaera ontan
Jainkoak nai izan
zien inguratu zalba-
tzeko ol bat, ontzian

zijoazen Prantsisko santuaren ordenako bi praileri eta eldurik ol oni, iritxi zuten olatu asare ayen artean ere ur gañean gelditzea: beste laguntza gabe, beldur atsekabe ta kezkaz beterik, irauñ zuten iru egunez, beti burukan, nai ta nai ez, zirudienenez zetořkien eriotzari gogoř egiñaz. Estutasun ontan oroitu ziran Jose santuaz, maitasun guziz aundia ziote-

lako, eta eskatu zio-
ten bere laguntza,
alako estutasunetan
eskatu izan oi dan
bezelako gogoz. Be-
ren eskaera bukatu
baño len, guziak ar-
iturik ekaitza pake-
tzen da; zerua ager-
tzen da alai ta garbi,
itxaso aseera bare-
tzen da, eta ol baten
gañean biziaren az-
kenean dauden prai-
le biak ikusten dute
oso ariturik beren
ondoan dagoan gi-
zaseme gazte eder

bat; onek poztu ta
arnas-beñitzen ditu
bere uste osoz, es-
keintzen zaye bera
zuzendaritzat, eta ar-
teraño inork ezagu-
tzen etzuan indar
bat emanaz ol apur-
tu ari an daramazki
berealaxe itxas-ertz
batera, eta salbatzen
ditu... Erezago da
iruditzea, esatea ba-
ño, nola arkituko zir-
an praile aen bio-
tzak; belaunikatzen
dira luñean, Jainkoa
goratuaz, eta beren

eskeñ ona zeruak
bialdu zien zuzenda-
ri ari agertzean, gal-
detzen diote nola
deritzan... Orduan
gazte ark bere zeru-
ko argiz edertutako
arpegiatz, esaten diz-
kie itz abek: «*Ninaz*
»*Jose...* agertu nai
»ba-didazute zuen
»eskeñ ona, nere go-
»goa ondoen beteko
»duan gauza da eñe-
»zatzea egunero,
»iñoiz utzi gabe,
»zazpi aldiz *Aita*
»*gurea, Agur Maria*

»*ta Gloria Patri...*
»nere bizitzako zaz-
»pi naigabe ta atse-
»gin aundienen ize-
»nez... Esan zien ere
»zer ziran naigabe
»ta atsegin oek, eta
»ezkutatu zan.»


Au dala esaten du-
te, *Zazpi Igandie-*
tako debozioaren a-
siera:gertaera edeña,
Jose Santuaren la-
guntzaren aldera itz
egiten duan irakur-
gai zoragaría! bada
irakurgai onek de-
bozio onen asiera

debozio onen asiera
baño obeki aditzera
ematen diguna da,
Jainkoak debozio au
erakustean, ipiñi nai
izan zuan bidea, be-
re ontasunak guga-
na eltzeko. Eta egiz,
ondo begiratuaz,
ikusiko degu, orain-
go munduak dara-
man bidea, ta gure
egunetako gizonen
oitura dala, guziak
bere bañenen dara-
mazkian ontzi, ola-
tu artean ondatzen
dana bezela, milaka

animak galduaz; e-
gia da Jainkoak gor-
detzen dituala bere-
tzat biotz zuzen ba-
tzuek, eta inguratzen
diela salbazioko ola
bere aukeratu ba-
tzuei; bañan egi bel-
dulgarí bat da, oek
oso gutxi dirala, ta
guziz asko, beriz,
galtzen diranak; eta
salbazioko olan gel-
ditzen diranak ere,
arkitzen dirala olatu
artean lanik askore-
kin, naigabe ta kez-
kaz beterik, eta mun-

duko zorien erdian
ondatzeko beldur
aundi batean... Zer
egin diteke?... gure
oraingo beaŕen sen-
dagairako Jainkoak
eman dizkigun bi-
dien artean, emen
daukagu Jose san-
tuaganako debozi-
oa, eta beragana ba-
goaz zazpi igande
oek egiñaz, gertatu-
ko zaigu, bi praile
ayei gertatu zitzaye-
na, au da, gozatu-
ko gaitu luŕeko es-
tutasunetan, eta on-

tzi zuzendari onaren antzera, eramango du gure animen ontzitxoa bide zuzenez zorioneko kai edeñ artara. Eska dezagun bada beti Santu onen laguntza, eta gorputzeko ta animako onari begiraturik, egin dezagun sañitan ta gogo biziz *Zazpi igandieta*ko debozioa.



BIGAREN IGANDEA.

Asierako otoitza lenengo igandean bezela, 9'gaten ofialdian.

GOGORALDIA.

Maria ta Jose, Jesus-aufaren jayotzan.

Lenengo gogoraldia —Gogora eza-
zu nolakoak izan ziran Jose'ren biotzari gañez eragin zioten naigabeak, eta zerutikako atsegiñak Jainko Semearen jayotzan. Bide guziz luze ta neketsuak

igaro ondoan, eldu ziran azkenik Maria ta Jose Belen'go urira, eta emen Zesar'en agindua egin ta ondorean, Maria'ren Senar maitatiak egin zituen alegin guziak bere Emazteari ostatu on bat arkitu nayaz, bideko neketatik atsedentzeko. (Bazeukan egiz Dabid'en urian senide-tarte aundi ta aberatsa, eta aen atietan deitu zuan irikiko ziralako uste osoan,

uste-izanez poztuko
zirala era berean be-
re etoñeraz, eta ager-
tuko ziotela poz ori
emakume zoragañi
ura emaztetzat ar̄tu
zualako) bañan, us-
te etzuan gertaera
negargañia! Orduan
bete ziran, andik ge-
roago Ebanjelari
Juan santuak ipiñi
zituan itz oek: *Be-
rien artera etoñi zan,
eta bereak etzuten
ar̄tu...* (Baño orain-
dik geyago ere izan
zan:) Oso atsekabe-

turik santu au, eta berien artean, ez legorpe ta ez egontokirik, arkituko etzala azkenean ezaguturik, joan zan eramankizun aundiz, samintasuna bazuan ere, bere Emazte santua besteak zeuden ostatuan sartzea eskatzera: (izango ziran an apainduri aundiko gelak, oi biguñak, janari guziz atsegin eta ugariak: baño au guzia mun-

duko aundizkientzat
zan, luñeko ondasun
galkoñez inguratu-
rik bizi ziranentzat;) *besteak zeuden osta-
tuan ere etzegoan
tokirik...* Maria ta Jo-
se'rentzat esaten di-
gu Ebanjelioak, (o-
negatik beañezkoa
zanezkero nunbait
ere sartzea, zetoñen
gabak otzaren antza
baitzekaren, sena-
-emazte santu oek,
beren ontasuna Jain-
koarenaz bat egiñi-
kan, ixil-ixilik atera

ziran ain eruki gutxi arkitu zuten uri artatik, eta bere inguran zegoan estalpe bakar eta zarbatean sartuta, antxen jayotzen da Jainkoaren Semea bearik aundienean ta inor ere artzaz oroitzen ez tala...] Nega egiten badezu gizonak utzi zaituztelako, eta umezurtz bezela, ez eren laguntzik gabe zaudelako, gorde zazu, era onetan arkitzen zera-

na! eta ar zazu go-
goan zure pozerako
gertaera au, emen
gauza guzien beara
baizik agiri bai-da;
[ikusten dezunean
zure burua bakarrik
eta laguntzik gabe
gizonen aldetik inor
oroitzen ez dala zu-
tzaz, eta, beartuez-
keroz, iges egiten
dizutela, aberats zi-
ñaneaninguratzen
ziñuten adizkideai,
eta zure senide ta
aideai ere ez deriz-
kiela ondo zuri itz

egitea, aldentzen dirala zu zoazen bide-
tik, zugana ez elkar-
tzeagatik eta lotsa-
tzen dirala zuri agur-
egitez: lurreko bizi-
tzan gertatu oi diran
uste ez bezelako nai-
gabe ta samintasun
abek guzietan, ez
aztu Jose'k eta Ma-
ria'k Belen'en era-
man zituzten naiga-
beaz, eta aek bezela
maite zazu ixil-ixilik
zeruko Aita, zure ze-
ruko eritik uruti er-
bestean bizi zerala

onela oroiterazo nai
dizulako; edo era-
bakigile zuzena dan
bezela, naigabe o-
en bidez zure le-
nagoko gaiztakeri
ta pekatuak ordain-
tzera bearitu nai zai-
tualala: [aldendu zaite
munduko zarateta-
tik, eta kristabari da-
gokion eramankizu-
naz zure bearitasun
ta naigabien baruan
sarturik, ikusiko de-
zu jayotzen dala, zu-
re animarentzat ere,
bearitsu ta laguntz

gabekoen Jainkoa...]

Bigarren gogoraldia.—Gogoan aritu zazu aundiak izango zirela senar-emazte aen pozak egon toki ura zeruko argiz ederturik ikustean, eta guziak utziak zeukaten es-talpe ura alaiturik, aingeruak, artzayak eta eregeak alkarren ondoren ara egin zuten etoñeraz.

Ikasi ezazu emendik lenengoz: beartasunari beti ongi ta

begi onez begiratu
beaŕ diogula [onbide
au, Jainkoak asko
maitatu zualako, eta
beraz nai izan zuala-
ko apaindu luŕean
bere lenengo jaure-
gi ta bizi-tokia] eta
gero ikusi ezazu no-
lakoak izango diran
iritxi ditzakezun a-
tsegin aundi ta neu-
ŕigabeko eskeŕak,
luŕeko naigabe ta e-
ramankizunetan zin-
tzoa izanik, erabaki-
tzen ba'dezu ixilduaz
guzia eramatea, eta

zure egite guzietan
Jesus, Maria ta Jose'
ren ikasbideak ba-
karik eredutzat idu-
kitzea. Belaunikatu
zaite Santu onen o-
ñetan; eska zayozu
eman degizula es-
ker au, baita ere be-
rarekin batean bea-
dituzungañerako es-
ker guziak, batez
ere *Zazpi Igande a-*
betan nai dezuna
iristea.

*Emen geldi-une txiki bat, eta
gero azkena 26'gaten ofialdian
bezela.*



Jesus auraren seaska.

Gurasoetatik seme-alabetara aoz-aodatoreren erakutsi bat da, Jose santuak Jaungoiko-aurá adoratu ondorean, bere eskuz seaska bat egin ziola; au aitatzen dute Baronio'k eta XIV'garren Benedikto'k. Seaska au adoratu zuan luzaro Jeronimo santuak, eta gero, 642'garren

urtean gutxi gora
bera, aldatua izan
zan Erakusle onen
ezur-kondarakin ba-
tean, Palestina'tik
Eroma'ra, eta *ad*
*præsepe'*ko Maria
santua deritzan Ero-
ma'ko elizan adora-
tzen dute orain kris-
tabak. Pitxi ede' au-
beti iduki izan dute
kristau onak maite-
tasun aundienean;
baño Jainkoak nai
izan du nunbait irau-
tea seaska ontan
santu onen argi-e'ra-


ñuen bat, eta utzi
die zenbait aldiz ere-
jeai ostikotu eta zi-
kintzen seaska au.
Eta ala: 1287' gañen
urtean Kolonna Kar-
denalak sartu zuan
zilañezko kutxa itxi
eder batean; baño
Eñoma'n gudariak
1527' gañen urtean
sartu ziranean, pro-
testanteak etzuten
beañ bezela begiratu,
bandaloak eta go-
doak berak egun
batez ongi begira-
tua, eta apurtu zuten

seaska santua, itz
gaiztorik aundieneren
artean. Igaro zan ira-
ñaldi ura, eta seas-
karen zatiak bildu ta
ipiñiak izan ziran ur-
eztutako zurezko on-
tzi batean. Andik
geroagoan V'gañen
Sisto Aita Santuak
egin zuan eliztxo gu-
ziz edeñ bat, eta
ordutik an gordeak
izan ziran; eta 1606'
gañen urtean Espa-
ñi'ko e'egin, Austri'
tañ Margarita'k erli-
ki ain maitagaña

gordetzeko, agindu zuan berak ordainduz egin zedila zilarrezko beste kutxa bat. Zori gaitzez beriz ere kutxa ura ostu zuten, eta aldi onetan prantzesak izan ziran ostu zutenak, 1801'garren urtean; baño beriz ere españarrek zuzendu zuten gaiztakeri aundi au: urango urtean Vilahermosa'ko Dukesa'k agindu zuan zilarrezko irugarren kutxa egiteko eta o-

netan ipiñi zuan VII' gañen Pio Aita Santuak bere eskuz erliki santua. Geroztik ere egondu da berriro sinismengabe-koen ta lapuñen eskuetan erortzeko zorrian, baño ala ta guziz ere, ariñgaro badiarau, kristauak adoratzan dutela, eta bide batez jañtzen digula begien aurrean, nai badiogu jañaitu, Jainko batek eskola artatik erakusten digun beañtasuna, ta

Maria ta Jose lañi
ain estu ta bakarta-
sun artan poztu zi-
tuan Jainkozko po-
zaren oroipen onen
bidez agintzen digu-
la era berean, gu
ere poztuko gaitua-
la, beař bezela era-
maten baditugu luř-
eko gurutze ta nai-
gabeak.



IRUGARĒN IGANDEA.

Asierako otoitza lenengo igandean bezela, 9'gaten orialdian.

GOGORALDIA.

Jesus-aufaren Zirkunzisiaoa.

Gogoraldi bakara.
— Sañ zaite zure pentsamentuz Jainkoaren asmo eskutuetan, eta zure pozgarritzat, begira zazu gauñ nola Jaun onek eramán zuan Jose Aita doatsua bide guziz nekatsuenetik.

Naikoak ezpaziran bezela, ain asko izanik ere, Jesus ta Maria'k eguraldi gogor eta Belen'go estalpe zar eta idiki artako otsagatik zeramazkiten naigabe ta eramankizunak [au ikuste utsak naigabetu ta iluntasunez bere biotz maitatia santu oni bete zio-larik,] badirudi Jainkoak atsegin arkitu zuala bere eskuz geitzen Jose doatsu-aren naigabea, eska-

tzean bete zezala bere Seme Jainkoak ere, pekatariak bakarrik beartzen zituan lege ura, beartu ezin zezakealarik Jainkoaren Semea, santutasun guziaren egilea zalako:] *zortzigaren eguna eldu zanean, dio Ebanjelioak: izan zan Aura zirkunzidatua.....;* ¡Nola egongo zan Gizaseme ain on onen biotza, zeruko aurarentzat ain mingaíri zan eginkizun

au ikustean!; zer mai-
tasun aundiz ikusi-
ko zuan ixurtzen ku-
tsu gaizto gabeko
Bildots aren lenen-
go odola! [igertaera
arigari artan noski
ixuriko zituan bere
begietatik negar mal-
ko ugariak; bere a-
nima guziz santuak
noski sentitzen zuan
eruki ta biguntasuna
agertuaz, Jesus'en
ixiltasuna ta bere
Biotza sututzen zuan
zeruzo naitasuna i-
kustean, bada bere

gogoz jaítzen zan
bera, beaítzen etzu-
an agindu bat bete-
tzera. Artuko zuan
beretzat gizonen aít-
tean ain gutxi eza-
gutzen zan birtute-
aren erakuspid e-
deña; eta beste za-
letasun guziak Jain-
koaren Ama ta bere
Emazte guziz mai-
tearekin bat egiñaz,
len aur gaixoagan
ipiñi zituzten begi
garbi aek zerura ja-
soaz, biak belauni-
katuko ziran esateko

lenengo aldiz, biak
batera aur' onen ga-
ñean *Jesus*'en izen
guziz gozoa, eta e-
sango zioten zeruko
Aitari: «¡Guzialdun
»Aita! ondo dakigu
»nai eztituzula ta go-
»goaz etzaizkitzula,
»sentzugabeko aber-
»eak zuri eskeintzea:
»zure Seme bakariari
»gorputz bat eman
»diozu, eta eskatzen
»dizugu beragan, al-
»dare batean bezela,
»ontzat artu dezazu-
»la aginduetaratzea»

eta gizonai itzegiñaz
esango zuten: «Atoz-
»te Adan'en umeak,
»eta ar' zazute aldare
»santu ontatik naita-
»sunezko eskeintz
»onen zati bat, bera-
rekin santu egin zai-
»tezen; gizon bakañ
»baten agindua ez
»egiñak bere ondor-
»engo guziak peka-
»tari egin zituan be-
»zela, alaxe zintzo
»onen aginduak egi-
»ñak santutu ta zer-
»uratuko gaitu Adan'
»en ume guziok...»

eta Aurak jarraituko
zuan miñez ta negar-
ez, eta bere negar-
tara juanik, negar-
-malkoak legoñtze-
ko alegiña biak egin-
go zioten, beren mal-
ko gozo ta sutsuai
aurarenak nastuaz;
eta zeruen poza iza-
nik, guganako nai-
tasunez orduan ne-
garéz zegoana uki-
tzean, izango zituz-
ten ezin esanalako
atsegintasunagatik
eskatuko zioten izan
zedila anima askor-

en on ta salbatzera-
ko, egun artan ipiñi
zioten *Salbatzale-*
izena...]

¡Jose, zorioneko
santu ta nere lagun-
tzalea! egun ontan
eskatzen dizut eruki
zaitezela nitzaz; eta
Jesus-Aurak bere
zirkunzizioan ixuri-
tako malkoak eman
zizuten samintasun
aundiagatik, eta mis-
terio artan artu zi-
ñuan esker berezia-
katik, eskatzen dizut
nere animako indar

guziz josi dezazula
nere biotzaren er-
dian Jesus'en izen
gozoa, bere oroipe-
nak erakutsi degi-
dan santutasuna ne-
re bizitzako egite gu-
zietan, eta bizitzaren
azkenean, nere az-
ken-lañian, eman de-
gidan nere lenagoko
zorakeri ta pekatuz
oroitzean beaño
dedan poz eta in-
daña.

*Eskatu bitez gainerako laguntzak ere
eta, geienbat, bakoitzak ZAZPI LGANDE
abek egitean iritxi nai lukeena.*

*Emen geldi-une txiki bat, eta gero az-
kena 26'garen ofialdian bezela.*

Zazpi lgandeak Q.—6



BEAR[˙]TSUARI LAGUNTZEN DIONAK BEAR[˙]-
TSUAGAN JAINKOA LAGUNTZEN DU.

Bizente Fe[˙]er
santuak esaten di-
gu, emen ondorean
ipi[˙]niko dan erakus-
bide guziz eder[˙] au.
Bere e[˙]riko gizon
sal-erosle on batek
naitasun aundia
zien Jesus, Jos[˙]e ta
Mariari, eta au go-
ratzeko, urteoro bes-
te gauz on askoren
artean egiten zuana

zan, bere maira gizaseme zañ bat, emakume bat eta ume bat eramatea; sinispenaren argiz ezagutzen zuan, beañtsuai Jainkoaren izenean egiten zaien on guzia betiko bizitzako liburuan jañtzen duala Jaun onek, berari egin balitzayo bezela, eta oregatik iru beañtsu aek etxeratu ta berai jaten ematean, asmo onez uste zuan, au guzia egi-

ten ziela Belen'go
iru beartsu gaxo aei,
au da Jesus, Maria
ta Jose'ri.

Gogoratze onek
eman izan zion bere
bizitz guzian, ezin
esan-alako poza: e-
ta il ondoan, ageftu
zitzayen bere ani-
magatik eskatzen
zeuden batzuei, eta
esan zien zeruan ar-
kitzen zala, iltzeaz
bat, Jesus, Maria ta
Jose bere bila jetxi
zitzaiizkiolako esa-
naz: «Luñean bizi

izan zeran bitartean,
irurok zure etxean
aítu izan gaituzunez-
kero, gauñ irurok ga-
toz zu aítzera, zure
anima zeruko gure
betiko jauregi ede-
retara eramateko...;»
eta au esanik, aítu
zuten aingeruak be-
ren egoen gañean
eta eramán zuten
betiko zorionetara.

Zorionekoa izan
zan salerosle ura,
bere diruak beñere
galerik ez duten eta
bizitzan ta eriotzan

obari aundiak ematen dituan betiko toki artan jari zitualako. Jose ona! Egizu salerosle ark egin zuana, eta beti gogora ezazu, zerurako bidietan bitartekorik onenak bearatsuak dirala, eta abei ematen zaiena Jainkoari ematen zaiola.



LAUGAÑEN IGANDEA.

Asierako otoitza lenengo igandean bezela, 9'gaten orialdian.

GOGORALDIA.

Jesus elizara ekañtzea.

Lenengo gogoraldia.—Gogora-zazu Jesus jayo zanetik berogeigaren egunean Birjiña guztiz santu eta bere senar Jose santua, Jerusalem'a joan zirala, eta ara eltzean Jau-naren legea betetze-

ko beſtako elizara
joan ziralala ere. Ga-
rai artan Jerusalen-
'en bizi zan Simeon
zeritzan gizaseme
zañ, zintzo ta Jain-
koaren belduñeko
bat. (Gizon onek go-
go irazekienez *Is-
rael'en salbatzalea-
ren* zai zegoan, eta
Espiritu Santuak
agindu zion etzala
ilko, *Salbatzalea le-
nago ikusi gabe.*)
Bere ibilerak Jauna-
ren Aingeruak zu-
zentzen zituen, eta

elizara joan zan, Jose ta Maria, Auña besoetan zutela, el-tzeaz batean, ta bere adimena zeruko argiz argiturik, artu zuan Auña bere besoetan eta begiak pozezko negar malkoz betetzen zitzaizkiola, bedeinkatu zuan Jainkoa, eskatuaz eramán zezala mundutik, ain asko maite zuan Salbatzailea ikusi ta bere besoetan iduki zuan-ezkero, eta go-

zoro ariturik zeude-
la senar-emazte Jo-
se ta Maria, etortzen
zaye Ana, igarlea,
beti elizan bizi zan
emakume alargun
santu bat, eta asten
da Jaunaren gorape-
nak kantatzen, bere
pozezko kantua Si-
meon'enaz bat egi-
nik: eta egiz bai
aundia izango zala
bi santu aen zoriona,
ikustean azkenik
Maria Birjiñaren be-
soetan *ainbeste itxo-
-egiten egon zirana.*

(Noe, ujolde izugarí
ta bere ondapenak
lenbailen azkendu
zitezzen zai zegola,
ezin esan ala poztu
zan oliboaren adar
bat mokoan zekañe-
la usua ikusiaz, e-
kaitz ura bukatu za-
la emendik ezagutu
zualako: gogora de-
zagun bada, nola-
koa izango zan Si-
meon eta Ana'ren
poza, uso zuri ta
guziz garbi, Maria
eldu zala ikusiaz eta
onetxek zekañela

bere Seme Jesus' gan, mundua ondaturik zeukan naigabezko ujoldia bukatu zalazko ezagun-gaya....!)

Bigaren.—(Baño, ai zeñ egi aundia dan, *bizitz erukari ontan atsegiña ta naigabea bata bestearen ondoren, elkaren guziz urean dabiltzala!*) Pozaren pozez ariturik guziz garbi Maria zegoan Jose guztiz santua ikusiaz, Jesus ta bi

Maria'k israeldar
zintzo aei ematen
zioten poza, baño
bere poza samindu
ta biotza naigabez
bete zitzaion, Si-
meon'en aotik adi-
tzean, Jesus'ek oso
oñaze asko eramán
bea'ko zuala, ta Ma-
ria'ren anima oña-
zezko ezpata batek
erdibituko zuala...:ai!
be'iztatu bea' izan
zitzaizkion Jose'ribe-
re biotzaren ba'renen
iga'le santuak jo zi-
tuzten iletak, Seme


ta Amaren naigabeak bat-banaka agertuaz...] eta etzan ori bakarik: ezagutzean gizon zañ ta santu arka auraz esan zituen eramankizun aetan etzuala berak ezer izango, ikusizuan argiro ezpata zoñotz ta gogoñ baten antzera, Aita eta Senařarena zan bere biotza, alde batek bestera zulatzion egi negařti bat, bai, ordurako bera ilko da, eta ezin ar-

indu ta lagunduko
ditu, ez Jesus beñere
oñaze gogorretan, e-
ta ez Maria bere nai-
gabe ta bakartasun
guztiz gogorean...]
ai! ezagutzeko zein
aundia izandu zan
Jose santuaren nai-
gabe samina gerta-
ra ain beltz artan,
bearko genduke On-
gile santu onek mai-
tatzen zituen biotz
ta naitasun sutuaz
Jesus ta Maria guk
ere maitatzea...

¡Zorioneko San-

tua!: zure naigabe
ta samintasun . oek
dirala, nere anima-
ko indar guziaz es-
katzen dizut lagun-
du degizkigula neri
ta zure jayeriti guziai
Jesus ta Maria'ren
eramankizun ta nai-
gabeak.

Asmo santu oetan iraunaz, es-
katu degizkiogun Jose santuari,
gerontzat eta gure urkoentzat bear
ditugun laguntzak eta batez ere
Zazpi Igande oetan iritxi nai
gendukean eskef berezia.—Emen
geldi-une txiki bat, eta gero azke-
na 26'gafen ofialdian bezela.



JAUNAK BORDE ZAITZALA,
GURUTZE MAITAGARIA...I


Egun batean Jose santuari eskatzen arkitzen zan naitasun aundia zion Rodriguez Ama ta zentzu gabe gelditurik, espirituz Jose santua ta bere emazte Maria zorionez beterik ikusi zituen. Maria'k bere Semea-ri monja arगतik eskatzen zion artean, Jose santuak eskeñi

zizkan bere jayeriti
oni bi ontzi edariz
beteak: ontzi bateko
edaria guziz samina
zan ta bestekoak o-
so gozoa; ta esan
zion: «Ea nere alaba,
esan zadazu, bi on-
tzi oetatik zein na-
yen dezun; edozein
artuaz nere gogoa
egingo dezu.» Mon-
ja Agurgarri ari go-
goratu zitzaion or-
duan, Jesus'ek auke-
ratu izan zuala gu-
gatik samintasunez
betetako ontzia, eta

bere laguntzale Jose santuak ere ontzi artatik tanto bat utzi gabe edan zuala, lurrean bizitu zan bitartean, eta bereala eskatu zion edari saminez betetako ontzia, esanaz: «Nola aukera nezake nik edari gozoa, zu, nere Jesus maitea, samintasunez beterik ikusita?» Orduan Jose santuak, gurutze guttiz eder bat erakusten ziola, esan zion: «Guttiz ondo auker-

atu dezu, nere alaba... eta emendik aurera gurutzearen az-
tuntasuna bere oñaze guziakin eramango dezu: baño poz-
tu zaitte, beñere agortuko ez dan zoriontasunaren iturria
gurutzean arkituko dezulako, baita egunetik egunera Jauna-
ren gogokoagoa izateko ta zerurako ondasun aundiak
aureratzeke bide bat ere... Auxe bai jañai-
garria, gurutzearen e-

deřtasun aundia be-
ar bezela ikusi nai
duanarentzat...!



BOSGAÑEN IGANDEA.

Asierako otoitza lenengo igandean bezela, 9'garen orialdian.

GOGORALDIA.

Ejiptora iges-aldia.

Lenengo.—Begira zer aundia izango zan Jose santu Aita zorientsuaren nairgabea, Simeon'en esanak ain laster betetzen asten zirala ikustean: (Jesus oso gorotatu ta iraindua izango zala onek a-

dirazi ziolako). Belen'a eltzean, andik Nazaret'a joatekous-tean, Aingeru batek Jose'ri agintzen dio Ejipto'ra iges-egin dezala, Erodes biotz gogora Jesus'en bila zebiletako, ilera-zo nayeanean (ikus-ten bai-zuan Jesus'en bizia galtzeko zor-rian, zalapa'rt artan, etzuen gauzik bea'renak artzeko ere as-tirik izan. Oraindik emakume gaztetxo bat zan Maria, eta

Jesus'ek etzituen orduan astebatzuek baizik, baño alaere etzebilen aitzaki bila:) aítzen ditu Jesus ta Maria, eta berakin bakarik, gabaz, ta garairik otzenean, ba-dijoa Judea'ko bere lur maitetik ufutira, ta bide guttiz txar ta ez ezagunetatik eramaten du aurá Ejipto'ko erbestera. Nere Jainkoa! izango ote denik orain biotzik, us-te izateko, asko era-

maten dedala nigan, edo nere urko lagun-en animetan, beař dan bizitzan irauteko artu beař izaten ditudan neke ta naigabeagatik?

Bigarren.—Begera ařeta guziz, aundiak izan zirala Patriarka santu onek bere naigabeak gozatzeko zituen atsegiñak, bai Ejipto'ko bidean, ta bai Ejipto'n bertan bizi izan du zan artean: lenbizi, berarekin batean

zijoazen Jesus ta
Maria (eta abekin
bizia bera bakarik
naikoa da, edozer
naigabe ta neke al-
dentzeko, ta edozer
galera ordaintzeko)
ta gañera, nork iritxi
lezake zer aundia
zan Jose Aita eta
Senararen biotzak
artu zuan neuriga-
beko poza, ikusiaz
aurez igarle santuak
esanik zeukaten be-
zela, erori zirala
pusketan, beren al-
dareetatik Ejipto'ko

Iduri gezurtiak, eñi arñtan Jesus bere Amaren besoetan sartzeaz...? Eta bada zer aundiak izan ziran adirazi lezakean mingañik eñbeste arñtan bizitu zan artean arñtu zituan esker esan-ezin alakoak, eta bere biotzak arñtu zuan pozura, Jesus-añaren aotik lenengo itza aditzean gu arñitzen gaituan mundu au ezerezetik atera zuan itza, eta santuta-

sunezko erakuspide
arigariak, Ejipto'ko
ilunbeetatik aterazi-
ko zituan itza eridi
artan bakartasunean
bizi ziran gizatalde
santu ta ugari aek
geroago mundu gu-
zia aritzen zutela...?

Gogoan artu zazu
Jainkoaren agindue-
tara jariezkeroz (zu-
retzako gogor bada
ere) berak nai duan
bezela lurreko erbes-
te onetan, naiz irain-
dua izan, naiz zure
izen ona gezurrez

kentzen dizutela, naiz osasun gabe, beartsu naigabez betea, bearez inguraturik arkitu, maitatu ta indartuko zaituala Jainkoak gertaera oroigarri ontan, Jose Aita poztu ta indartu zuan bezela [sartzen zaituala zu ere Jesus ta Maria'rekin bada aen naitasunak gozaten ditu naigabe guziak eta oen eramankizunak daramazkite gauzak ongiartzera. Ikusiko de-

zu luŕ joko dutela,
zugan ta zùre gain
dauzkatzun anime-
tan griña gaiztoen
iduri gezurŕtiak, eta
adituko dala ezere-
zaren ilunbietetan zure
griña txararak paketu,
ta zure biotzean on-
bideak soŕtuko di-
tuan jainkozko deia,]
eska zayozu Jose Ai-
tari eskeŕ au gogo
biziz, eta bere aur-
ean belaurikaturik
eska ezazu, gañera-
ko beaŕen alde, ba-
tez ere *Zazpi Igan-*

*dieta*n beragandik
iritxi nai zendukean
laguntza.

*Emen geldi-une txiki bat, eta
gero azkena 26'gañen ofialdian
bezela.*



Jesus, Maria ta Jose'ren
eramankizuna.


Lanbide ontan egu-
nero ari zala geitu
zituan bere gorpu-
tzeko indar'ak, baita
animakoak ere Mi-
lan'en aingeru ziru-
dien Agustin san-
tuaren ordenako Bi-
nasko'tar Anjela zer-
itzanak. Maria ta Jo-
se santuaren antzera
beartasunean bizi
nayaz, asi zan bere

gogoz eskean ta Jainkoa goratzekoa zan ar̄k biotzean zuan poz ontan asizanezkeroz ateratzen zan Milan'go kalietara, baita ere inguruko eñi txikietara, ta atez-ate joatzen zan, bere erlijio-lagunentzat Jainkoaren naitasunez limosna bat eskatuaz. Gaizki-esaka ta asereturik bialtzen zutenean, oroitzen zan orixe ta bera egin izan ziotela Ma-

ria ta Jose'ri bere
aide ta ezagunak
Belen'en ostatu bila
ibili ziranean, eta as-
ko eramán bea' i-
zan zutela Ejipto'ra-
ko bidean ere, gau-
zik bea' enak izan e-
zik joan bea' zutela-
ko. Oroipen onek be-
tetzen zion pozez be-
re biotza. Egun ba-
tean, gogoan zerabi-
lela Maria ta Jose,
Jesus au' arekin E-
jipto'ra igesi joan zi-
rara, eta gogoratze
onetan arkitzen za-

larik aei laguntzen
ba'zijoakien bezela,
aditu zuan Maria'k,
amik maitien batek
bezela, esaten ziola:
«Nere alaba, ikusi
»dezu zenbat naiga-
»betu geran Jose ta
»ni Ejipto'ra eltzeko:
»izazu beti gogoan
»eramankizun gabe-
»ko laguntzik esta-
«goala». Eta alaxen,
bere bizi guzian izan
zuan gogoan Ma-
ria'ren esan au: eta
zorionez beterik il-
zan. Iduki dezagun

guk ere gogoan beti
egi au; eta negaréz-
ko erbeste ontan
soñtzen zaizkigun e-
ramankizunetan ez
degu geiegi estutu
ta asaretu bear, bai-
zik Beronika san-
tuak bezela egin
bear deguna da, *Je-
sus Maria ta Jose
bezela, naigabeak
eramaten beti bizi.*



SEIGAREN IGANDEA.

Asierako otoitza lenengo igandean bezela, 9'gaten ofialdian.

Ejipto'rako atzera biurtzea.

Lenengo.—Begi-razazu Jesus, Maria ta Jose beaŕ zituzten gauz asko gabe arkitu ziralala Ejipto'n bizi ziran zazpi urte aetan: aŕotz, beaŕtsu ta ez-ezagun, iduri gezurŕtien goratzale artean biziko ziran, beaŕ zuten jatekoa

ere askotan nekez ingiratuaz.

Baña emandako itza zintzo betetzen dakien Jaunak Aingerua bialtzen dio beñiro Jose santuari Ejipto'tik irtetzeko, ta bere eñi mai-tera joateko garaia eldu dala adiraziaz, [*Aurá galtzeko bere ondoren ibili ziranak ilziralako*] Pozez beterik Israel'eruntz bidean astenda, baño luñ santu arñtan sartzeaz

bat or datorkio u-
nean bere poz ura
samintzen dion go-
goratze bat: jakin
zuan Arkelao Ero-
des'en ondoren Ju-
dea'n zegoan eregea
biotz gogoreko ta
odolzalea zala: ba-
ño ala ere saminta-
sun onen ondoren,
zerutikako pozaldi
bat berriz ere izan
zuan. Bere ibilerak
zuzentzen zituen Ain-
geruak adierazi zion
Galilea'ra joan, ta
antxe bizi zedila Na-

zaret'eko uri edo e-
fian. [Nolako atse-
gintasunez beteko
ote zan gizon santu
onen biotza ikus-
tean, beriz ere laz-
tandu zitzakiala Ain-
gerua agertu zan e-
txe berbera, Jainkoa
Gizon egin zan bizi-
toki ura maitetu ta
bertan gelditu eze-
ren beldur gabe an-
dik uruti ainbeste
urtez igaro ondoan!..

Begira orain no-
lako izan bea-
duan zure bizitzak,

erbeste ilun ontan
zeruko laguntzak Jo-
se Santuaren antze-
ra, zugandu nai ba-
dituzu. Zure efitik u-
futi zaudela ezagu-
turik Jainkoak nai
duana nai bear de-
zu: zure gogoz are-
narekin bat egin eta
ark nai duan bezela
negar eta naigabez-
ko toki ontan bizi
zeran bitartean soñ-
tzen zaizkitzun ger-
taera guzietan aren
gogoa egitea; onela
iritxiko dezu, Jauna-

ren Aingeruak bere egapean zu zaintzea, zure bizitzako ingurune guzietako iluntasun zorigaitzetan argitzea, eta zure egizko eria dan Zeruraño zure ibilerak zuzentzea. [Zorioneko Santua! Zer maitetasun eman nitzayeke egizko pakea zertan dagoan eztakien mundu baten gezurézko aundikeriai? Munduko iskanbil, jolas ta ikustekoetatik al-

dendurik, egin naidet, zure antzera, nere bizitz onek jartzzen dizkidan egingizunak, pakezko bizitz bat iristeko, zuk bezela, jainkozko argitasunak, ondo beteaz zeruko Aingeru-laguntza izateko ta aekin batean bizitzeko.

Asmo santu oetan iraunaz, eskatu degizkiogun Jose santuari gerontzat eta gure urkoentzat bear ditugun laguntzak eta batez ere ZAZPI IGAÑDE oetan irilxi nai genaukean esker berezia. Emen geldi une txiki bat, eta gero bukaera 26'garen orialdian bezela.



**BIZITZ SANTU BATEN ON-
DORENGO IRABAZPENA.**

**Ai zer atsegiña i-
zan bear duan Jo-
se aitaganako mai-
tasunean bizitz gu-
zia igaro ondoren
azkeneko arnasa e-
matea! Egi pozgarí
onen ezagungarí
bat da san Agustín'
en Ana deritzaion
Karmen'go Monja a-
gu'garía.**


**Jesus-Teresa Ama
santu laguntzale**

aundia goratzen bere bizi guzia igaro ondoan, azkeneko garaya eldu zitzaionean uraxe izanduan Jose santuaren bitartez iritxi bear zituen laguntzak argiroago ikusteko garaia. Agertu zitzaion Santu au, Teresa santuari, aingeru ta santuz inguraturik. Iltzeko zorian zegoan monja zoriontsuak bere gela zèru biurturik ikusita, neurfigabeko

pozez beterik arkitu zan, eta bere alaitasun, esan ezin alako pozezko begirune ta gañerako guzian bakarrik esaten zituan itz abek: *Nere gurasoak! Nere gurasoak! Nere gurasoak!* eta irugañen aldiz esatean bere anima zerura igo zan.

Onela poztutzen ditu Santu onek eriotzako garayan, bizitzan berari maitetasun izan diote-

nak, eta zeruko poz
eta atzegiñez betiko-
tasun guztirako be-
tetzen ditu...!



ZAZPIGAÑEN IGANDEA.

Asierako otoitza lenengo igandean bezela, 9' gañen ofialdian.

Jesus galdu zitzayonean Jose Santuaren naigabea.

Lenengo.—Gogorra zazu, Jose santuaren biotza mundu ontan atsekabetu ta samindu izan zuten naigabien artean aundiena edo, Origenes-argiak di-on bezela, «martiri» guziak eramán zuten baño geiago,

»Jose santuari era-
»man erazi ziona i-
»zan zala.»

Joan zan Jerusa-
len'a Jesus ta Ma-
ria'rekin, Jaunaren
legeak agintzen zua-
na egitera; eta [edo
bere guraso santuen
naitasun eta zintzo-
tasun andia garbi ta
argiroago jaítzea-
gatik, edo Jainko be-
zela, bere buruaren
jabe zala adierazte-
ko, edo bere zorio-
nerako beste bide-
ren batzuekatik] Je-

sus ezkututzen zaye
eliz santuan geldit-
tuaz, ezertxo esan
gabe. Nork adiera-
zi lezake, beaŕ be-
zela, nolako belduŕ
ta naigabez beteko
zan gizon santu o-
nen biotza, Jesus'en
beŕirik iñundik etza-
la ikustean? [nork e-
sango du nolako
goibel ta ekaitz ar-
tean ondaturik gel-
dituko zan gau ilun
artan, bere anima-
rentzat ezkutatzean
zeruko eŕañudun E-

guzki zana? Naigabearen indararak e-tzian utziko beregan egoten ere noski, eta asiko zan alde guzietatik bila negar ugariz guziaz eskatuaz esan zegio-tela, *nun zegoen bere animak maitezuan*. Ustekozuan agian bere ixiltasun aundian berak zeukala galera aren erua, al guzia egiñaz ikusteko, arkitzen ote zuan beragan, Santutasunaren E-

gilea arengandik al-
dentzera beartu ze-
zakean utsegiter-
en bat. Senar onari
dagokion naitasun,
eta Maria'ri zion
maitetasun guziz ir-
azekiagatik, estutu-
ko zan esan ezin a-
diña, Maria'ren Biotz
guziz garbia zer nai-
gabetua arkitzen zan
gogoratzez.....] Erú-
karia ni, esango
zuan: zeruko Aitak
egin ninduan bere
Semearen zaitzale,
baño eginkizun au

bai gaizki bete dedala! *Umea ezta agiri, eta ni nora joan nindeke?* edo zer poz arki lezake nere animak?

Bigarren. — [Jose santuaren biotz maitetsua zenbaterano zan ikusteko Jaunak bialdu zion erakuspide gogor onek sortu du noski zure biotzean min erukitsu bat: orelaxe sortu bear du ere zure biotz ontan min ta erukirik aundiena,

gizonik geienen biotzak eta adimenak inguratzen dituan itxumen erukañi ta iluntasun beldurgarizkoak:] galera bat bakara da gure biotza naigabetu beaŕ lukeanik, eta au da pekatu lañiz Jesus galtzea, gure animetatik Jainko-laguntza botatzean galtzen degun bezela [*Jesus gabe egotea da inperñurik beldurgariena; Jesus'ekin egotea da*

zerurik atsegiñena]
alare egi au alde
batera utzirik, lufe-
ko ondasunez ingu-
ratuta jaio izan dira-
nak edo aberatsak,
eta gizonengandik
datoñen begirape-
nak eman oi duan
zorion iduripenez-
koarekin ondo arki-
tzen diran batzuek,
aztutzen dira Jesus'
ezaz, eta zorionta-
sunaren iduripena-
rekin itxuturik, eta
pozez, ezertakotzat
ez dute artzen Jesus,

baita ere bere laguntasuna; eta arako guziz bestera jatoréz, beartsu diranak, edo luñeko goraberetan, edo agian beren gaztetasuneko bizitza txaragatik beartsu izatera eldu diranak, erakusten badizkie ere Jesus'ek bere beartasun ta estutasunezko erakusbi-deak deituaz naitasunez beterik, gozatzera bere Biotzean beartasun ta ezer-e-

zari oi zañ aizkaten
naigabeak, ez dute
alare aditu nai bes-
te gauzik, munduak
bere jañ aileai, goñ-
tzeraño egin oi diz-
kien ots ta iskanbila
baño, munduko on-
dasun, aunditasun,
ta gezuñ ezko pozai
bakañ ik begiratuaz!,
soñ tzen diela oen o-
roipenak bere bio-
tzetan, pakea gal-
tzerañoko bekaizke-
ria ta edozer gaiz-
takeri egitera jañ tze-
rañoko goñ oto bi-

zia. Gizonen semeak! noiz arte izango zerate nagita biotz gogofekoak?

Eskatu zaiozu Jose santu zoriontsuari gizon oen aldez, eta eska zaiozu laguntza, naiago izan dezazun Jesus'ekin bizitzea, lurreko ondasun guzien jabe izatea baño, eska zaiozu ere *Zazpi I-gande* oetan iritxi

**nai zendukean esker
berezia.**

*Emen geldi-une txiki bat, eta
gero azkena 26'gaten ofialdian
bezela.*



**SEME BAT BALDUTA... JOSE
SANTUAREN BITARTEZ ARKITUA**

Prantzi'ko uri aundi batean bizi zan giza- seme gazte on bat. Jainkoaren deia-ri erantzunaz, zerua irabazteko, praile sartzea erabaki zuan; baño bere gurasoak egiten baitzuten al-guzia eragozteko; ta jainkozko deyaren ta gurasoen eragozpenen artean luzaro gogoñ

egin ondoren, azkenik alde batera utzizuan Jainkoaren deya. Munduarekiko juan-etoñiak aragikerien indañoak eta lagun txarñen leunkeriak laister gaiztotu zuten gazte au, gaiztakeririk aundienetara jañtzeraño, eta iges egin zuan, Ebanjelioko seme galduak bezela, bere gurasoen etxetik, eta sartu zan soldadu. Soldadutzan aurrea artu zien gaiz-

toenai ere okefkeri
guzietan, Jainkoak
uzten ziola onetan,
kastigatzeko seme
au, bere gurasoen
naya egiteagatik
Jainkoaren deyarri e-
rantzun etziolako, e-
ta kastigatzeko ere
gurasoak, maiteta-
sun beaŕ ez bezela-
ko baten indaŕez se-
meari Jaunaren de-
ya erantzutea erago-
tzi ziotelako. Naiga-
beturik biziŕo gura-
soen biotzak, beren
semearen galera e-


kustean, etziran as-
pértzen karta karta-
ren ondoren eskri-
bitzez, negañez es-
katuaz utzi zezala
bizitz ura, eta biur
zedila etxera, laz-
tanka artuko zutela-
-ta. Alpeñikakoak i-
zan ziran eskaeragu-
ziak: azkenik zeru-
ko argitasun batek
ama biotzean ukitu
zuan; ipiñi zuten Jo-
se santuaren eskue-
tan semearen bizi-
tza, au bide onera
biurtu zedin. Eska-

tzen diote zaindu
dezala gazte ura, eta
aritzeko gauza! San-
tu erukitsu onek be-
reala egiten du gauz
arigarri bat: gazte
ark sentitzen du be-
re biotzean gaizta-
kerien damu aundi
bat eta oso bestetu-
rik, biurtzen da be-
re gurasoen etxera;
eskatzen die negar
andiz emandako nai-
gabien barkapena;
eskatzen die guziaz
aztu ditezela, eta as-
ten du bere lengo

urtietan bezelako bizitz bat. Ai guraso guziak, beren semien galera negar-garia ekustean, ipi-ñiko balute Jose santuaren eskuetan aen bizitza, bide onera biurtu ditezen! Ikusiko luteke aundia dala bere biotz erukitsuaren ontasuna: Jesus aurá zanean, galdu zalako ain naigabeturik arkitu zana, Jesus'ek bere odol guziz zerrurako erosi zituan

ainbeste anima be-
tiko galtzen dirala
ikustean atsekabe-
tzen dalako ere.





MEZA SANTUA

JAUNAREN PASIOKO IBILLERAK GOGOR-
ATUAZ ONDO ENTZUTEKO ERA (1)

Apaizak aldareko mañak igotzean gogora zazu Jesus bere pasio santuari asiera emateko letsemaniko baratzen sartzen dala.

(1) Jose santuaren *Zazpi Igandeak* egin oi dira geyenean garizuman, eta orégatik meza santua ondo entzuteko dauden era askoren artean autu degu Jesus' en pasioko ibilerak gogoratzen dizkiguna, Elizako Erakasleak erakusten digutena. Beragatik Jose santuaren maitatzaleak irazeki dezake biotzean bere sinismena, Jesus' en pasioko ibileren gogoratzez, eta aetako bakoitzean jaso biotza Jainkoagana, erukituaz batzuetan, bestietan bere pekatuen damuz, baita ere goratuaz gugatik gizon egin eta il zan Jainko baten ontasuna, gañera eskatuaz ere eruki ta laguntza beretzat eta pekatari guzientzat, Aita guziz altsua bitarteko beti ipiñiaz.

MEZA ASTĒAN.



OTOITZA

Bai aundia da-
la zure zoriona!

Apaizarekin batean bai zuaz Bildotz garbikutsu gabea Jau-nari eskeintze-ra; orain ordaindu ditzakezu zor guziak eta bea-rituzun eske-ugariak Jauna-nandik iritxi. Nork eman le-zaikidan san-tuak meza en-

tzutera zijoaze-
nean eramán oi
zuten sinismen
bizia!

Emen Jaunaren
auréan ártuko de-
zu beste gauzetan
zure gogoa, ez jar-
tzeko asmoa eta be-
re laguntza eman
degizun, esango de-
zu: *Ni pekataria*, Je-
sus'ek Jetsemani'ko
baratzan eskatu
zuanean zugatik i-
garotako oñaze a-

tsege ta laña gogo-
ratuaz.



IGOTZEN DA APAIZA ALDARERA
TA BEYARI MUÑ EMATEN DIO



OTOITZA

Jesus atera-
tzen da etsayen

bidera ta artzen
du Judas gaiz-
toaren gezuñez-
ko laztana. Be-
gira ezazu A-
postolo esker-
gabe onek bere
Erakaslea sal-
tzen duala! Bes-
te ainbeste ez al
dezu iñoiz zuk
egin...?

APAIZA BA-DIJOA EPISTOLA
ALDERA.



OTOITZA

Eraman zuten
Jesus Jerusalem'

a eta Anas'en
etxetik Kaipas'
enera, eskuak
loturik gaizkile
aundi bat bali-
tzake bezela.



KYRIE-ELEISONEAN.



OTOITZA

Ai! Iru bideñ
ukatzen du Pe-

dro'k Jesus: zen-
bat aldiz ukatu
dezu zuk peka-
tu egiñaz, eta
Ebanjelioak a-
gintzen duena
gizonen aurrean
egiten lotsa-
tuaz?



••••• Apaizak, daudenenganuntz begira-
turik dio:

DOMINUS VOBISCUM,



VEBERNY

OTOITZA.

Jesus'ek Pe-
dro'ri begira-

tzen dio, etabiur-
tzen du beraga-
na, begirune er-
ukitsu bat egi-
ñaz. Begira za-
dazu neri ere
alaxe, Jesus gu-
ziz maitea.



OREMUS ETA EPISTOLAN



OTOITZA.

Pedro santua,
bere pekatua e-

zagaturik, da-
mutzen da, ta
negar egiten du
bere bizi guzian.
Zuk ere ar̄k be-
zela pekatu e-
gin dezunezke-
ro, damutu zai-
te, eta negar̄ e-
gizu ar̄k egin
zuan bezela.



EBANJELIOAN



DEBERNY

OTOITZA.

*Jesus etorri
zan mundura,*

egia erakustera;
aitoörtzen du e-
gia argiro ta e-
zeren beldur gá-
be Anas, Kai-
pas, Erodes ta
Pilatos'en aur-
ean. Lenengo
irurak par egin,
eta eskuak lotu-
rik bialdu zuten;
azkenekoak zi-
goñez jotzeko
ta Gurutzean il-

tzeko agindu
zuan.

Begira zer
itxaron dezake-
zun: ikaslea ez
da erakuslea
baño geyago,
ez eta ere mira-
bea bere nagu-
sia baño geya-
go, bañan ma-
kaldu al zera...?
jañi zaite zutik
Ebanjelioa en-

tzuteko aditze-
ra emateko ga-
rai berean, ger-
tu zaudela Gu-
rutzeko dotri-
ñaren alde lan
egiteko, eta kris-
taua zerala ai-
tořtzeko, mun-
du guziaren aur-
ean.



KREDOAN



OTOITZA

Kredoan dau-
de laburkirosar-

turik kristauak
sinistu ta jakin
beaŕ dituan egi
guziak; zuri era-
kusteko jaŕiak
daudenen aotik,
zintzotasunez
ta aŕretaz aditze-
ko, eta gañera
zure mendean
gai onetan dauz-
kazunai erakus-
teko zuk ere as-
mo erabakia ar-
zazu.

KALIZARI ESTALKIA KENTZEAN



OTOITZA

Baita Jesus'i
ere kendu ziz-

kioten lots aundiz bere jantziak; eta zuk zenbat aldiz kendu diozu zure animari laguntza?



OSTIA ESKEINTZEAN.



OTOITZA

Jesus jaítzen
da bere gogoz,

neke-aldi ta e-
riotza gure naitasunez eramatera, noiz jarriko gera gu naitasunari naitasunez erantzutera, bizia biziagatik eskeintzera?



ESKUAK GARBITZEAN



OTOITZA

Pilatos'ek agin-
tzen du Jesus iltze-
ko, ta bere eskuz eta

bere izenaren bean
ori agindu ondoren
nai luke eskuak gar-
bitzeaz bere burua
garbitu. Ai gizon
gezurti onen gaizta-
keri goñotagaña!
Bañan kristauen
izena daramagula-
rik, Jesus pekatuz
atsekabetzean zen-
bat aldiz eztegu egin
Pilatos'ek egin zua-
na?



ORATE FRATRES'ean.



OTOITZA.

Begira nola Pila-
tos'ek Jesus gizo-
nen aúrean ipiñirik,

esaten dien: *Ecce Homo*: ona emen gizona. Zure begiak eta biotza jaso, ta esayozu zeruko Aitari: Ona emen gizona. Begira zayozu zure Semeari; eta oren zuzentasun eta santutasunagatik eskatzen dizut, barka zaizkidatzula neri nere pekatu guziak.



SANTUS-AURRE TA SANTUS'EAN



OTOITZA

Jesus baño na-
yago dute Bañ-

abas azkatzea.
Pilatos'en etxe-
an Jesus'i egiten
dizkate gaizta-
keri guziak; eri-
yozko epai edo
erabakia ema-
ten diote, eta
gurutze aztun
bat bizkañean
ipiñirik, aditzen
ditu eñi guziak
botatzen diz-
kion madarika-

tzeak, eta ixilik
artzen ditu ematen
dizkaten atsekabeak.
Egizu aldezun guzia
Jesus'en atsekabeak
arintzeko bizitza
santu bat egiñaz
zure biotza lurreko
gauzaz goitik jasoz,
eta aingeruai bat
egiñik apaizare-

kin batean esa-
zu: Santua, San-
tua, Santua da
gure Jaun eta
Jaungoikoa: ze-
ru-lurak zure zo-
rionez beterik
daude.



BIZIEN GOGORAKETAN




OTOITZA.

Ikusi ezazu Jesus
iru iltzetatik zintzili-
ka eta bere Ama gu-

ziz santua gurutze-
aren oñean eska-
tzen, mundua salba-
tu dedin. Eska, za-
yezu zure biotzeko
nagar ta samintasun-
naz eskatu dezatela
zure aldez ere, ta ez
ditezela alpeñrika-
koak izan zure ani-
marentzat beren es-
kaera ta eramanki-
zunak; eskatu eza-
zu zeroñek ere zure
ta urkoen beañ gu-
zien aldez.

OSTIA GORATZEAN



OTOITZA

Begira zure
naitasunez Je-

sus gora jasoa-
ri; maite zazu
bere gorputz gu-
ziz maitekoña;
eta zure biotza-
ren bañendik e-
sayozu: Nik mai-
tatzen zaitut,
mundua salba-
tzeagatik guru-
tzean ildako Je-
sukristo nere
Jaunaren Gor-
putz guziz mai-
tagañoa.

KALIZA GORATZEAN



OTOITZA.

Anima zintzoa, Je-
sus'en zaurietatik
datozen odolez egin-

dako bost ibai aye-
tan busti-aldi bat
artzera zuaz, eta si-
nismen guziz esayo-
zu: Nik goratzen zai-
tut, gurutzean ixuri-
rik, nere ta mundu
guziaren pekatuak
garbitu zintuen Jesu-
kristo nere Jaunaren
odol ongarria; ez de-
zazula nai, Jesus o-
na, Odol ain edera
neretzat alpeñik ixu-
ria izatea.



KALIZA JASO ONDOREAN.




OTOITZA

Jaraitzen da
Jesus'eneriotza-

ren misterioetan: gurutzearen oñean dago Maria: bere atsekabeak neuririk ez du: lagun egiezu Semeari eta Amari estutasunik aundienean.



PATER NOSTER'EAN



OTOITZA

Jesukristo'k bere
zazpi itzak guru-
tzean esaten ditu:

Apaizak érezatzen
du Aita gurea; zuk
ere zure bea' guzien
zuzenbidea eskatuaz
esan zazu: *Aita gu-
rea...*



OSTIA ERDIBITZEAN.




OTOITZA

Oñazerik aundienenerdian Je-

sus iltzen da: zure pekatuen damua artuaz, zure Salbatzailearen eriotzagatik negar egizu Linbora Jesus zintzoen animak andik ateratzerara jetxi zala adierazteko, Apaizak, Ostia-
ren zatitxoa kalizara botatzen du.

AGNUS'EAN



OTOITZA

Jesus il. ondoan,
Kalbariotik asko ta
asko, beren bulañak

joaz jetxi zirala go-
gora zazu; zuk ere,
zurea jo zazu, iru al-
diz esanaz; Mundu-
ko pekatuak kentzen
dituzun Jaungoikoa-
ren Bildotxa, gutzaz
eruki zaite!



JAUNA-ARTZEAN.



OTOITZA

Obi edo iltokian
Jesus jaítzen dute:
zure biotzean saítu

dedila, maitetasun
biziz eska zayozu,
eta gaur Sakramen-
tuan artu dezunez-
kero, espirituzko ko-
munioa egizu, esa-
naz: Jesus maitea,
zeruan ta Aldareko
Sakramentu guziz
santuan egiz zaude-
la sinisten det; gau-
za guziak baño ge-
yago maite zaitut,
ta nere animan artu
nai zaitut, baño Sa-
kramentu santuan
ezin artu zaituda-
nezkero, gogoz be-

ñepein nere biotze-
ra atoz, eta etoñi ba-
ziña bezela, laztan-
tzen zaitut, eta oso-
ro zurekin bat egi-
ten naiz. Ala izan de-
dila.



KALIZARA ARDO TA URA
BOTATZEAN.



OTOITZA.

Jesus'en gorputza
usai gozozko uken-
duz igortzitzera

Magdalena ta beste emakume on batzuek obira dijoaz: apaizak, beñero kaliza estaltzen du, ta Jesus'en anima gorputzarekin bat egiñik, beñere beñiz ez iltzeko, zorionez beterik piztutzen da.



DOMINUS VOBISCUM ETA AZKE-
NEKO OTOITZETAN.



OTOITZA.

Jesus, bere Ama
Santuari, Apostolo
ta gañerako ikas-

leai, berógei egunian
beren artean ibiliaz
agertzen zaye.




BEDEINKATZEAN.



OTOITZA

Espiritu Santua
Apostoluengana jex-
ten da.

AZKENEKO EBANJELIOAN,



OTOITZA

Jesus'ek, bere bi-
zitz etaneke-aldi gu-
ziz santuko miste-

rioak ikusi zituzten
Apostoloak, mundu
guzian bere ikasbi-
deak zabaldu ta
Ebanjelioa erakus-
terabialtzen ditu: zuk
ere, Ama Birjin eta
Jose santuari, be-
deinkapena eska za-
yezu, eta Jaunari,
meza santua entzu-
teko laguntza eman
dizulako, esker u-
gariak emanaz, Kris-
to'ren usai gozoa al-
de guzietan banatze-
ko asmo erabakiaz
elizatik atera zaite;

eta zure erakusbide
ta egikeraz Jesukris-
to gure Jaunaren
maitetasun eta ikas-
bidea nunai eraku-
tzi zazu.



MEZA SANTUAREN

ONDORENGO OTOITZA.

XIII'gañen Leon Aita Santuaren aginduz 300 barkapen dituzte.

Erezatzen dira iru Agur Mari ta Salbe bat.

Eskubide guziak dauzkazun Jaungoiko guziz altsua, eskatzen dizun eñi oni arpegi onez begiratzayozu, eta Ama Birjin txit garbi Jesus' en Ama, bere senar doatsu Jose santu, Pedro ta Pablo apostolo doatsuen eta Santu guzien bi-

tartekotasunez entzun itzazu eruki aundiz, zure oñetan pekatari guzien biurpenerako ta gure Eliz Ama Santaren zorionerako ipintzen ditugun gure eskarriak. Kristo gure Jaiuaren bidez. Ala izan dedila.

Migel goaingerua, zaindu gaitzazu ta etsayaren erasoaldien aurrean gure laguntzale izan zaite; Jainkoak menderatu

dezala, au da gure eskaera laburra; eta zuk, zerutar gudar-ien burua, inpernue-tara sar-itzazu gure animen galpenaren bila beti dabilzan Satanas eta bere lagun gaiztoak. Ala izan dedila.

¶. Jesusen Biot guziz doatsua.

¶. Gutzaz eruki izan zazu.

(Iru aldiz.)

ESKERRAK EMATEA.

Nere Jesus, Meza santua entzuteko la-

guntza eman dida-
zulako, eskeñak e-
maten dizkitzut. Ne-
ri ta mundu guziari
egindako eskeñak e-
ta izan diguzun eñ-
ukitasuna beti go-
goan izateko lagun-
tza indazu; eta oen
gogorapenak, zuri
maitatzeko dauka-
gun beña guziori e-
zagutu erazi degigu-
la; eta zuk, zure go-
goz eta gure naita-
sunez ainbeste er-
aman dezun ezkerro,
guk ere, gure bizier-

ako beańak zuzen
beteaz eta emengo
gaitz eta estutasu-
netan eramankizuna
artuaz, zure alde go-
go oso zerbait egin
degizugula. Jesus
maitea, asmo santu
oetan irauteko beań
dedan indańa, ta bi-
zitz eta eriotzako ga-
rayan zure neke-al-
di santuaren erakus-
bide ugaria iristeko
laguntza indazu; eta
eskeń oek gure Ama
Mariaren Biotzaren
naigabe ta bitańtez

eskatzen dizut, bada
bera, gure salbatze-
rako laguntzale be-
zela, gurutzearen
oñean eduki nai izan
zenduan, eta nere la-
guntzale zerutar Jō-
se santuaren bitar-
tez, zerura ondo el-
du nadin, an zure
gorapenak betikota-
sun guzian kanta-
tzeko. Ala izan de-
dila. *Aita gurea, A-
gur Maria ta Gloria.*



IL BAKOITZAREN 19'GAREN EGUNEAN
JOSE SANTUAREN IZENEAN
EGIN DITEKEANA.

Jose deunaren maitatzalea, goizean, Aita Jose zoriontsuaren izenean, Sakramentuak ondo artu ta meza deuna ondo entzuteko, aldezula egingo dezu.

Arátzaldean edo egunaren al dezakezun edozer garaitan gogoraldi laburtxo bat egingo dezu, *Zazpi Igande*'tarako jañi diranen bat artzen dezula bere babes erukitsua ondoren eskatuaz: ta Maria'ren Senar guziz garbi ta iltzen daudenen zaintzaleagandik eriotz on bat iristeko, urena jañtzen dan otoitza egin zayozu, eta beste zenbait aldiz ere beaen

batean arkitzen baze-
zera, ori bera egin
dezakezu.

AITA JOSÉ SANTU ZORIONTSU-
AREN ALDE OTOITZA.

DEYA.

Gure Jauna, biotz
guziz goratu deza-
gun. R). Jose santu
gure laguntzale zin-
tzo ta ona maitatuaz,
bere babesean egiz
jañiaz.

Irukoitz guztiz
Santua goratu de-
zagun, eta Jainkoa-

ren Amatasunak gañerontzean dan gorapenik aundiena Jose Santuari eman diolako, berari eskerak eman ditzaizkagun.

Irukoitz, emale guziz ugaria goratu dezagun, eta berari Jose zoriontsua beste Santuak baño geyago bere zeruko eskezez eta jainkozko laguntzaz apaindu dualako, eskerak eman degizkiogun.

Jose zoriontsua,

bere seme Jainkoaren Ait'ordeko emen luñean izan zedin autatu izan zualako, eta aurtxoaganako maitetasunez betetako ta guziz aitakoi dan biotz bat berari eman ziolako, Betiko Aita goitua izan dedila. Erukiz begiraturik, ain bizi ro nai deguna eman degigula, sinismen bizi ta aundi batez eska degiogun.

R). Ala izan dedila. *Aita gurea, Agur*

Maria ta Gloria.

Jose zoriontsua bere Ait'ordekotzat artu zualako, eta bere bizi, janari ta jantzi-az ajola izan zezan eta berari lagundu zezayon, onen biotzean maitetasun eta ańretazko ardura andi bat jańi zualako Seme Jainkoa goitua izan dedila; eta guretzat guziz beara zaigun laguntza, us-te on osoz eskatu degiogun.

R). Ala izan dedila.

Aitagurea, Agur Maria ta Gloria.

Maria Birjiña gu-
ziz garbiari garbi-
tasunean bere an-
tzeko dan senar Jo-
se, Maria'ren garbi-
tasunaren zaintzale
zintzua, santu onen
biotza Maria'gana-
ko naitasun ugari ta
aundi batez beteaz
eman ziolako, Espi-
ritu Santu Jainkoa
goitua izan dedila;
guk asko nai degun
ta bear degun la-
guntza iritxi degi-

gula, semeak Aitari
oi dioten maitetasu-
nez eskatu degio-
gun. R). Ala izan de-
dila. *Aita gurea, A-
gur Maria ta Gloria.*

ESKAERA.

Jose guziz zorion-
tsua! Zu, zeruko Ai-
tak bere Seme Jain-
koaren Ait'ordeko e-
gin zinduan: Semeak
ere Ait'ordekotzat ar-
tuaz, goratu zinduan,
eta Espiritu Santuak
beriz, bere Emaztea-
ren senar izateko

autu zinduan. Aingora jaso, ta ain esker ugariz apaindua izan zeralako, mila zorion opa dizkitzut. Baña, Santu guziz zoriontsua, gure anai-nagusi Jesus'en Aita zeranezkero, nolabait ere gurea zerala oroitu zaitte. Gure Ama guziz maitearen egizko Senara, eta beregatik aren Biotz kutsurik gabearen seme diranen Aita zerala ez aztu. Oregatik, ba-

da, zure semeak bezela, uste on osorik aundienaz gauñ gure begiak jasotzen ditugu, eta ondasunezko zure arpegi oñi begira jarita, txorikumetxoak beren estutasunetan amari deitzen dioten bezela, gauñko bearñ ontan zuri deitzen ditugu, zuk guri diguzun maitetasuna, amik onenaren maitetasunak ere ezin berdindu dezakelako. Esan bezela

begiratzén ta deitzen dizugunoi, maitetasunezko begirune bat egin zaguzu. Berez ain erukikoña dan zure biotz ori, oraingo gure bearez erukitu bedi. Zure egintzak, zure izenaren berdiñekoak izan ditezela, bada Jose'ren izenak geitzea esan nai du. Elizak, guzian zaitzaletzat jarri zaitu. Bear bezela egintz au bete zazu. Guri egiten diguzun

on guziaren neuria,
egitez au argiro era-
kutsiaz, zure guga-
nako erukia izan de-
dila. Aita erukitsua,
begira zure Aitata-
suna ta zure indarak
zuzendu ditzakean
bearik ez dezazula u-
tzi. Zure izenari, ba-
da, begira zayozu;
eta au naikoa ezpa-
litz, esker au, zure
Emazte guziz mai-
teari ta Jesus'i izan
ziñien naitasun aun-
diagatik, berakin ba-
tean betikotasun gu-

zian zeruko zorian arki gaitezen eskatzen dizugu. Ala izan dedila.

Otoitxoa. Jesus'ek iya ogeitamair urte zituan, eta Jose'ren semetzat zeukaten.

ÿ. Jose Santua, gure aldez eskatuzazu.

R). Jesukristo gure Jaunaren aginduak iristeko gai izan gaitezen.

ESKAERA.

Gure Jaun eta Jainkoa!
Zure Ama guziz santuar-
en Senaritzat, Jose zorion-
tsua autatu zenduan. Luñ-
ean gure zaintzaletzat ar-
tu degun au, zeruan ere,
zugaranako gure bitartekoa
izan dedin, laguntza egin
degiguzula, apaltasun gu-
ziz eskatzen dizugu. Zuk,
betikotasun guzian bizi
zeran ta agintzen dezun
Jainkoa. Ala izan dedila.

Jose Santuaren aldekoak.

*Debozio onen eginkizuna, Jose
eta bere Sendi deunaren bitartez,
Jainkoagandik eriotz on bat iris-*

tea da; eta garai estu artako egizko ta almen aundiko laguntzale bat ingiratzea; baña gure argal-tasunagatik bakoitzak berez egiten dituan eskaerak ain indar gutxi izan oi dutelako, eta askok elkar-ganaturik egiten dituzten eskaerak Jainkoak obeki aditzen dituanekero, oregatik Jose santuaren maitatzaleak elkartzen dira, eta Bilerera au, Santu zoriontsua egunero goratzeko, ta bere biotz onaren biguntasuna gure alde ipintzeko egiten dute, garai beldurgari artan zaindu gaitzan, eta ogeitamari personazko koroak jaririk, Jose Santuari ikustaldi bat egin, eta Bilera-ko guzien izenez, eriotz-garairako guzientzat bere laguntza eskatzeko, bakoitzak egun bat ilean artzen du.

Ikustaldi ori egitean esaten diran otoitzak oek dira:

Gurutze santuaren...

Jauna, nere ezpañak idiki itzazu, ta nere auak zure gorapenak esango ditu.

Zoriona Jesus'i, Jose'ri ta Maria'
Zazpi Igandeak G. —15.

ri, nere anima beren eskuetan jartzzen dedalarik.

Joakin eta Ana santuak, gutzaz eskatu zazute.

ESKAERA.

Maria Birjiñaren
Senañ guziz garbi
ta nere zaintzale a-
tsegin, Jose santua!
Norbaitek zure la-
guntza eskatu di-
zunean, zerbait iri-
txi gabe gelditu da-
nik beñere aditu i-
zan ez tala oroitu
zaitte. Uste onetan
zugana natoꝝ, ta si-
nismen bizi batez
zure eskuetan jañ-

tzen naiz. Jesus'en
Ait'ordekoa! nere es-
kaera aditu gabe ez
dezazula utzi, baizik
ontzat artu zadazu.
Ala izan dedila.

*(300 eguneko barkapenak, bio-
tzeko damutasunez badere, eskabi-
de au egiten bada IX'gañen Pio'k
1863'ko Garagañilaren 26'an. Vid.
Colecc. aut. de Orac. sup. cit.
pág. 299.)*

*Orain Sendi deunaren izenean,
bost Aita gure érezatzen dira, ta
bakottzaren azkenean esango da:*

Jesus, Maria, Jose, Joakin eta
Ana, bizitz eta eriotzan nere anima
zaindu ezazute.

JOSE SANTUARI
beste eskaera bat.

Santu guziz al-
tsua, gizatasunaren

zoriona, pekatarien
babesa, kristaben i-
txaropen sendoa,
naigabetuen senda-
gai gozoa, jabega-
bekoen egizko la-
guntzalea, Jose gu-
ziz zoriontsua; nere
bizitzaren azkeneko
garaya, nai ta nai
ez elduko da; nere
bizitzak zurearen
antzik izan eztua
gogoratzean, nere
anima larritasun aun-
dian arkituko da:
mundu ontatik bes-
tera igarotzeko e-

man beaŕ dedan i-
bilera ikaragaŕia i-
zango da; etsayak
inpernuaren indaŕ
guziaz gogoŕ ekin-
go dit. Jainkoagan-
dik betiko aldentze-
ko, nere indaŕez e-
zin atzera eragingo
dio, ta luŕeko gau-
zen artean, ezerk ere
ezin lagunduko dit;
oraindik bada, or-
durako deitzen di-
zut. Nere Aita, zure
laguntzaren bila na-
toŕkizu: nere sinis-
men, itxaropen eta

maitetasuna argal-
du ez ditezen, garai
estu artan lagun za-
dazu. Zu il ziñanean,
etsayak aldentzeko
zure animari gogoñ
egiteko ausardia e-
tzezaten, Jesus ta
Maria an arkitzea
asko izan zan; eskeñ
oetatik eta zure bi-
zitzan egin zizkitzu-
ten beste askogatik,
bilerako guzioi ga-
rai estu artan lagun-
du degiguzula, eta
inpernuko etsai gu-
ziak gugandik al-

dendu ditzazula eskatzen dizut, Jesus, Maria ta zu, nere Jose, biotz guziz maitatuaz, gure bizitza pake laztan batean bukatu dezagun. A-la izan dedila.

Jose Zoriontsuari Eskakerak.

Jose ona, Espiritu Santuaren aoz gizon zintzua: *gure azkeneko garayan lagun zaiguzu.*

Jose ona, Jainkoaren Semeak bere

Aitatzat iduki ziñue-
na: *gure...*

Jose ona, zeruko
Aitaren Aitatasuna
eta bere Seme ba-
karaganako maite-
tasun neurígabea i-
zan zendualako: *gu-
re...*

Jose ona, lurreko
Irukoitz edo Trini-
dadearen burua: *gu-
re...*

Jose ona, jayo di-
ran guziaz jaten e-
maten dienari jaten
eman zion aita: *gu-
re...*

Jose ona, munduaren Salbatzailearen salbatzailea: *gure...*

Jose ona, gizonai agertu zitzaizen betiko Jakintasunaren zuzentzailea: *gure...*

Jose ona, lurrera etorri izan zan betiko Jakintasunaren zuzentzailea: *gure...*

Jose ona, Aita guzizaldunaren Semea zure mende idukizenduanana: *gure...*

Jose ona Jainkoaren gizontzeko mis-

terioa Irutasun guziz
santuak elkaritu zi-
ñuana: *gure...*

Jose ona, zure ne-
ke, izerdi eta bizitz
osoa Jainkoa gizon-
-egiñaren ta bere A-
ma guziz santuaren
onerako igaro zi-
ñuana: *gure...*

Jose ona, eramán-
kizunaren ikasbidea
eta Jainkozko mai-
tetasunaren labe su-
tua: *gure...*

Jose ona, Santu
guzien artean lene-
na: *gure...*

Jose ona, Jesus
ta Maria'ren alda-
menean, zeruan al-
ki-goi bat daukazu-
na: *gure...*

Jose ona, anima
birjiñen zaintzalea
gure...

Jose ona, Apai-
zai beren eliz-lanak
nola egin bear' di-
tuzten erakusten die-
zuna: *gure...*

Jose ona, kristau-
en ezkontzari dago-
kion santutasunar-
en erakusbidea: *gu-
re...*

Jose ona, iltzen
daudenen zaintza-
lea garai estu ar-
tan: *gure...*

Jose ona, gizata-
sunaren laguntzalea
bere bear guzietan:
gure...

OTOIZTXOA.

Jose Santu guziz altsua!
Eskeñ oek guzietatik, zur-
e maitatzaleak, zure on-
tasun batzuek iritxi de-
gizkigutzula, luñeko juan-
-etoñietan lagundu zaigu-
zula, eriotzako garayan
zaindu ta zerura Jesus ta
Maria'ren auñera eramán

gaitzazula eskatzen dizugu. Erómako Aita santua, gañerako Obispo Jau-nak, eta oyekin bat egiñik ta beren mendean bizi diran kristau guziak ere, zaindu ditzazula eskatzen dizugu.

Jesus, Maria, Jose, Joakin eta Ama, nere anima zaindu ezazute.

Nere animak, nik maitate ditudan santu, Jesus, Jose ta Maria'ri, beti gorapen ta esker' ugariak eman deiztela.

Maria'ri senar' Jose zoriontsua! gu, ta Eleiza ta bere buru Erómako Aita Santua, zaindu gaitzazu.

AZKEN-AGURĀ.

Zugana nator Jose
Laguntzaren biā,
Zure laguntzapean
Bizi ta il nadīā.

Zure maitatzālien
Betiko asmua,
Da zuri eskeintzea
Biotz ta gogua.

Aundia bada nere
Ezereztasuna,
Askoz aundiago da
Zeruko ontasuna.

Geituaz egunero
Maite zaituztenak,
Ugaldu bitez emen
Zeruko laguntzak.

JOSE SANTUARI ESKAERA.

Zorionez aundia
Jaunak egin zaitu,
Jesus eta Maria
Zuk ditzazun zaitu.
Zure aunditasunak
Oso pozten gaitu
Inpernuko etsayak
Ezgaitzan garaitu
Añen iltzerakoan
Gutzaz zu oroitu.

*Eliz guziko Zaintzale Jose San-
tua! Zaindu gaitzatzu.*

*(Gure Aita Santu XIII'garren
Leon'ek eman ditu kristabentzat
200 eguneko barkapenak eskaera
abek egiten diran aldi bakoitzeko.)*





Jose Santu zorientsuaren
izenean aitortu ta Jauna-artzeko
bidea.

Pekatuak gogoratze-aureko
eskaera.

Nere Jaungoikoa,
emen naukazu be-
launikaturik zure
aurean, nere peka-
tu aundiak estutzen
nautela, ta aitortze
on bat egiteko as-
moz. Eskatzen di-
zut, gogoratu ditza-
dala azkeneko on-

do egin nuen aitor-
tzetik orain arteko
gogoz, itzez ta egi-
tez egindako okeñ-
ak, eta lagundu de-
gidala Espiritu San-
tuak, lotsik gabe ta
egizko damuz, ai-
torturik irabazi de-
zadan egun batean
zure aurrean ager-
tzea ez zure zuzen-
tasunak inpernura-
tu nazan, baizik zure
ontasunak aurrez e-
rabakirik eta barka-
turik naukala Sakra-
mentu onetan. Jose

Santu zoriontsua,
nere laguntzalea; pe-
katarien Ama, Maria'
ren Senar garbia,
eskatu ezazu nere
aldez, eta iritxi za-
dazu esker au. Ala
izan dedila.

Pekatuak gogoratze-ondoren-
go ta aitortze-aureko
Eskaera.

Nere Jesus! emen
daukazu lotsaz be-
terik zure legea be-
te ez duen pekatari
bat, ta zure maite-
tasunaganako esker

gaiiztoa izan duana.
Aula da nik zuri zor
nizuna, ainbeste ez-
keñ zuk neri eman
ondoan, ni zerura-
tzeagatik zure odola
ixurtzeraño maita-
tuezkero, ainbeste
aldiz zuk neri bar-
kату, eta nik ez ge-
yago pekaturik egiz-
ko itza eman izan
dizudalarik? Alare
aitoñtzen det pekatu
egin dedala, ta ori
zure aurrean... Utzi
zaitut nere Egile ta
nere Eroslea, iges

egin det gogaiturik
zugandik, nere gri-
ña gaiztoai atsegin
ematera ondo egin-
go zenekit zugandik
botako baniñuzu,
bañan ez: ez zin-
tzuen bila, baizik pe-
katariaik zugana ar-
tzera mundura eto-
ri ziñalako...! Aita
erukitsua zera, eta
adierazi ezazu ala
zerala barkapenik i-
rabazi eztuan oni
barkatuaz... Zugana
nator: ni naiz arako
Jerusalen'dik Jeriko'

ra bidean lapur gauz-
toen eskuetan erori
naizen eskergabe ur-
a, eta oek kendu di-
date zure laguntza,
eta estali nauten ere
pekatuen zauriz... i-
zan zaite Zu nere
zorigaitzaz erukitu-
rik, osasuna ta es-
keraren bizitza biur-
tuko dizkidatzun sa-
marita erukitsua;
zure erukitasunari,
nere pekatuetatik
garbitu nezala eska-
tzen diodan gaitz
nazkagaridun bat

naiz, nere utsegiteak
barkatu degizkida-
tzuu, zure oñetan
auzpezten naizen
Magdalena bat naiz;
erdilarugorian baña
eman dizkitzudan
naigabeaz lotsaz ta
damuturik natoñen
seme galdua naiz.
Ez nadila izan zori-
gaiztokoa, barkape-
na Zugandik ez iris-
teko, beste askori
barkatu diyezu-ta...!
Idiki itzazu Jauna ne-
re espanak eta ne-
re minganak aitortu-

ko ditu negaréz bere pekatuak; aundiak dira nere pekatu oek, baña aundiagoa da zure Odolaren ondasuna. Nik sinisten det zuk esan dezuna: au da, agindu dezula, zure Apaizak luñean barkatzen dituenak zeruan barkatuak dirala uste det, egun batean Gurutzean bezela, gauñ nere pekatuak beñiro gurutziltzaturik zaukazkitenezkero, eskatu ditzayozula zu-

re Aitari barka degidala. Bai, nere Jesus, neronek ere enekiyan zeñ egiten nuan; jakin banu, nola izan biotzik, eta ez indarík, Zuri, kalte egiteko ain onna, gure animak ain maite dituzun Eroslea? Nere biotz guziz maite zaitut: ain noñ izan litekean bereñere kalte egin ezti zuana...! Birjiña guziz santua, pekatarien laguntzalea! Zurre ontasunagatik na-

toŕ egin zenduan gurutzearen oñetan, ta munduak iritxi zuan barkapena, iritxi dezala nere animak, zure biotz saminduak mundu gaiztoarentzat iritxi zuan barkapen ura. Nere erorkerak ikusi dituzun nere Aingeru zaintzalea, lagun zadazu jaikitzen, ta eŕegutu zazu nire aldez garai oroigarí ontan, eta egitera nonan aitorketa ez dedila izan pekatu be-

ri bat, len egin ditu-
dan askoen geigarí,
ta zuk egun batian,
Jesus galdu zitzai-
zunean ainbeste nai-
gabetu zĩnan aita Jo-
se zoriontsua! iritxi
zadazu neurigabeko
naigabe aren zati
bat nere pekatuak
barkatzeko bear ain-
batean, eta zure go-
goan artzera noan
sakramentu ontan,
arki dezadala lena-
goko pekatuen bar-
kapena, eta aurera-
koan beriz egiteko

zoriontasun aundia.
Ala izan dedila.

Aitortzeko aldia datorkion arte Jose santuaren maitatzaleak igaroko du beta gogoratze santu ontan, esanaz damu aundiz, saritan Nere Jesukristo Jauna... eñezatuaz zazpi bideñ Aita gurea Maria'ren Biotz Sagraduaren naigabeen aldez edo iru aldiz, Jesus gure naitasunez arantzez koroatuari, lagunduaz Jesus'i, baratza santuan egin zuan otoitzeko il-larian, guzia naigabe damutasun geyago iristeko..

Gero esango du: Ni pekataria... eta aitortuko ditu, beregan arkitu dituan pekatuak, eta gero eskerak emanaz, esango du:

Aitortze ondorengo Eskatera.

Eskerak ematen dizkitzut, Jesus guziz maitagarria, ai-

toítze-Sakramentua
egin zendualako, ta
aitoítzeko beta e-
man didazulako. Be-
deinkatua izan de-
dila betiko zure on-
tasuna! Berak atera
nau pekatuen itxus-
keritik eta biurtu nau
zure adiskidetasu-
nera: atera nau in-
pernutik eta jaíri naiz
zeruko bidean; andik
aldendu nitzan peka-
tuen bitartez: goño-
tätzen ditut biotz gu-
ziz nere pekatuak
eta itz ematen dizut

eztedala beriz peka-
turik egingo. Ez ge-
yago pekaturik, nere
Jesus, ez geyago pe-
katurik; maite zaitut
biotz guziz eta zure
Neke-aldi ta eriotza-
ren izenean diot be-
riz ere, «pekaturik ez
geyago»; eta eska-
tzen dizut lagundu
nazazula zure lagun-
tzaz, zaindu nere e-
tsai guziengandik, e-
ta emen zorigaizto
ta asmo galgarrietan
eutsi zadazula zure
eskuz, beñere peka-

turik egin ez dezadan. Maria pekatarien zaintzale gozoa! Zure gauz bat bezela zaindu nazazu. Jose ona, nere bitarteko ta zaintzalea, iritxi zadazu laguntza, lenago il nadin, beriz pekatura bihurtu baño.

Bereala, al-bada, bete bedi apaizak emandako penitentzia.

JAUNA-ARTZEA.

Auretik ongi jartzeko bidea. Aureko egunetik

asi bea' du eskatzen Jo-
se'ri, erakutsi degiola no-
la ondo artuko duan bere
biotzean, berak ainbeste
aldiz goratu, laztandu be-
re biotzaren alde estutu
izan zuan Au' Jainko ura.

Gogoraldia.—Nor
da maitetasunezko
Sakramentu ontan
nigana dato'ena?...
Jesus, Jainko biziari-
en Semea, Maria ku-
tsurik gabe sortuar-
en Semea, Jose o-
naren Seme orde-
koa, Santu onek zai-
tu ta jaten eman

ziona bera, ogeita
amañ urtean berare-
kin bizitu zana, se-
meak aitari ekañi oi-
dion maitasunezko
ixiltasuna ekañi zio-
na; gauza guzien Ja-
be ta Erege guziaz-
duna, Jose onari e-
zeñ ere ukatu ezin
diona... zer estezu
iritxiko Jesus' gan-
dik, Santu zorion-
tsu au bitarteko i-
duki ezkerro? Piztu e-
zazu zure sinisme-
na ta geitu zure us-
te osoa, zerez ezin

dezuna onen bidez
iritxi dezazun.

Norgana dator?
Nigana esker gaiz-
toko pekatari baten-
gana, Jose onaren
maitatzalea izatea
irabazi ez dedan o-
nengana, bere bitar-
tekotasuna eskatzen
badet ere, bere era-
kuzbideak jaraitu
eztitutelako nigana
dator. Gaiztakerian
neurigabea, esker-
gaiztoan ikaragarria,
ta txarkeri guzien i-
turi beñere agortzen

eztana banaiz ere.....
Nola? Jesus maitea!
Nola jetxi zindezke
egiz nigana izanik
zu ain aundia ta San-
tutasuna bera? No-
la sartu zindezke ne-
re barura, eta nere
biotzean eseri, bal-
din bere inguruan
ezpadago eskeřga-
bekeria ta pekatua
baño?... Nere min-
gaña da gaiztaker-
izko mundu bat, eta
nola nik ukitu neza-
ke beraz ontasun
guzien iturri dana?

Nere bařena da
gaiztakerizko zoko
bat, eta emen artu
al nezake garbitasu-
naren Egilea...? ai
Jauna! geldi zaitte, e-
sango dizut zure A-
postoluarekin, etzai-
te etoři nigana, gi-
zon pekatari bat
naiz-ta; bařa zer i-
zango litzake or-
duan nitzaz, zu ken-
duezkero zeruratze-
ko itzik ezpadago?
Ez, etzaitzezela ni-
gandik aldendu. Zu
zera nere animaren-

tzat bidea, egia ta bizitza, eta zuk alainai dezunezkero, ni ere zugana nator, eta jaraituaz zure itzari esaten didazunezkero, jan dezadala zure aragia ta edan zure odola, betiko bizitza iristeko, nik eskatzen dizut leku bat zure mayan, jari nazazula zure ondoan, eta eman degidazula aingeruen janaria, ta nere baruan sartu ondoren zeruko ogia, au

da, zure gorputza;
jañi nazazula lo, ne-
re burua zure Bio-
tzaren gañean deda-
la nere lo au zuga-
nako maitetasune-
koa, izan dedin az-
keneko aparían zuk
maitien zenduan i-
kasle Juan santuak
egin zuan bezela-
koa... Bear bezela i-
piñi nadin, nere u-
tsegite ta argaltasu-
nak ezereztutzeke
eskeintzen dizut, zu-
re Ama guziz onak
Sakramentu maita-

garri ontan zu artze-
ko ipiñi oi zuten go-
go sutsua, ayen
maitetasun ta naita-
suna.... O zeruko
aingeruak! jetxi zai-
tezte leku santu on-
tara, Belen'go estal-
pera jetxi ziñaten
bezela, eta apaindu
ezazute zuen onta-
sunez nere biotz ga-
xo, zuen Erege ta
Jaun guzialdunaren
seaska ta bizileku
laister izan bea-
duan au... Nere A-
ma Maria, Jose ona

nerre zaintzale eruki-
koña, lagun zadazu-
te garai oetan Si-
meon'en eskuetan i-
piñi zenduten beze-
la Jainko Aña, ala
aldatu zazute orain
nerre biotzera; iraze-
ki bedi nere sinis-
mena, geitu nere
maitetasuna; ta ur-
tu nadila bera artze-
ko gogotan: nai nu-
ke orain artzera nu-
an Jesus izatea oso
ta biziरो nere ja-
bea...

Luñeko gauzetarako begiak i-

txirik, asmo santu oetan, edo oen antzekoetan egongo da Jauna-artzeko zorioneko garaya eldu arte: bijoa gero begia luferontz dituala, ixil ta ondo jantzirik: eta apai-zak, Jauna eskuan artuta, esaten duanean *Ecce Agnus Dei...* bere ezerezaz ańiturik, esan beza iru aldiz lenago Zenturion ark bezela: »Jauna, zu nere etxe utsean sartzeko gai ez naiz, bańan itz bat ezazu ta nere anima sendatu ta salbatuko da.»

Idiki beza gero aua, mingaña puskatxo bat atera, artu poz aundiaz zeruko ogia, berari atsegin artuaz; bada Espiritu Santuak Maria'ren eńayetan gozatua da, ta Jose onak ogei ta amań urtez zaitua. Ai zer atsegińa! Ai zer zoriona! Zure bańuan daukazu zure biotzeko Jaungoikoa, ta Sakramentuan dagoan zure Jainkoaren Biotza.

JAUN-ARTU ONDOAN.

Au da garairik onena ta egokie-na Jaungoikoari eskeń guzia es-

katzeko: artu dezu Jesus, ta zure biotzean daukazu, agertu zayozu zure eskeñ ona laguntz berdingabeko onegatik, goratu ta maite zazu, makurtu zaite Bere aurrean, ta eska zayozu batez ere Bera maitatu ta beste asko ere Bera maitatzera ekañtzeko laguntza.

Elizako Irakasle

Akino'tar' Tomas Santuaren
eskaera.

Eskeñak ematen dizkitzut, Jainko Aita guzialduna, egin dizkidazun eskeñ guziagatik, eta batez ere, zure Seme bakarren Gorputza nik artzea nai izan dezuz-

lako. Eskatzen dizut, Aita guziz ona, egin dedan Jaun-artze santu au eztedila izan nere animarentzat gaitzerako bidea, baizik barkapena iristeko bitartekotasun osasungarria. Izan degidala sinismena sendotzeko, gogo ona indartzeko, griña txarrik iltzeko, nere aragiaren nayerak kentzeko; biotz ona, eramankizuna, ta onbide guziak geitzeko,

nere egizko Jaun ta Jainko zu izanik, zurekin bakarrik betiko bat egiteko; eta egin zadazu laguntza eramateaz zu, egizko argia, zorion oso ta betiko atsegiña zeran mai, esan ezin bezelako artara. Jesukristo gure Jaunagatik. Amen.

(Urte beteko barkapena XIII' gañen Leon'ek 1884'ko Abenduaren 20'an.)


ESKAERA.

Begira nazazu, nere biotzeko Jesus, belaunikarik zure

auréan: eskatzen dituzut maitetasunik aundienaz, itsasi ditzatzula ongi nere biotzean sinismen, itxedopen ta maitetasuna, nere pekatuen egizko damua, eta ontzeko asmo sendoa, ni, al dedan maitasun ta eruki guziz zure bost zauriak nere gogoan dauzkaten bitartean, Zutzaz, Jesus ona! esaten zuan Dabid igarle santuak: «Zu-»latu dituzte nere es-

»ku ta nere oñak,
»eta zenbату ditezke
»nere ezur guziak.»

*(Barkapen osoa Jesus gurutzil-
tzatuaren irudi baten aurrean Jaun-
-artu ondoan esaten bada. IX'gaien
Pio'k 1858'ko Garagañilaren 31'an.*



Jose Santuaren Eskapularioa.

Aita Jose onaren maitatzalien onerako, eta beraganako maitetasuna alik geyen zabaltzeko gogoz, emango degu emen eskapulario onen beñi labor bat, Aita Santuak ontzat eman eta eskeñ ta barkapen askoz aberastu dualako.

Bere irudia. Beste eskapularioen antzekoa da; zapi orizko bi zaitxoz egiña; abetako batek dauka Jose'ren irudia, eskuiko besoan Jesus aña ta ezkeñekoan lili zuri bat, ezkeñeko besoari puskatxo

bat bertaraturik. Irudi onen oñean irakurtzen da: «Jose ona, Eliz guziaren Laguntzalea.» Beste zati-txoan dago Aita Santuaren ikuñatza, ta gañean: «Jaunaren Espiritua da bere zuzendaria» Zapi orizko zatitxo abetako bakoitza dagokio josirik beste zapi morezko zati aundiagotxo bati gañetik, eta bi zati-txo moreak, elkartzen dituzte beste eskapularioak bezela, bi lokañitxok.

Eskapularioak zer esan nai duan ta zertarako dan. — Kolore oriak, Jose'ren zuzentasun ta santutasuna esan nai du; moreak bere apaltasun eta ixiltasuna: eta lilioak bere garbitasuna. Eskapularioa da: 1.^o Jose'ri Elizaren aldezkatze-ko. 2.^{en} Santu onegandik pekatua-ganako gofotoa, eta bakoitzak bere bizierako eginkizunaz betetzeko bea' dituan laguntzak iristeko. 3.^{en} Eriozko garairako bere laguntza iristeko.

Barkapenak. Aitorpen eta Jaunartzeko Sakramentu santuak arturik, bisitatzen dala Eliz bat, iraba-


zi dezakete kristauak barkapen oso bat, emen ondoren esango diran egun oetako bakoitzean: Eskapularioa artzen dan egunian, Jau-naren jayotzakoan, Urte-beñi egun-ean, Jesus'en piztuerakoan, zeru-ra igo zaneakoan. Maria'ren soñtze garbikoan, beraren Jayotzakoan, Anunziaziokoan, au da, aingeruak Jaungoikoaren Ama izango zala esan zionekoan, Kandelario egun-ean, ta bere Asunzioko edo zeru-ratu zaneakoan; Jose onaren eriyozkoan (Epailaren 19'an) bere Patroziniokoan (Pazkoa garizumako-tik 3'gañen igandean) eta azkenik eriozko garayan.

Gañera, biotz damutuaz badere, Eliz edo otoigela agiriko batera jun ezkerro, Aita Santuaren gogora bertan eskatuaz, Eñomako gelditokietako barkapenak irabazi ta purgatorioko animen onean ipiñi ditezke. Barkapen abek, Eñoma'n jai ori dan egunetan irabazten dira, eta egun abek zein diran, *Eñomako Misala* deritzan eta Apaizak meza emateko idukitzen duten liburuan erakusten da.

Baita ere, beste eskapularioak eramán bear diran bezela Eskapulario au eramánaz, eun eguneko barkapenak, egun bakoitzean bein irabazi ditezke.

Orlako bear da, 1.^o Jose'ren ingurukoen artean sartua egotea, eta eskubidea duanak ipiñirik, Eskapularioa soñean eramatea. 2.^{en} Eskapularioa, ipiñik dagoan bedeinkapenaz bedeinkatua izan dedila; baño bein bedeinkatu ta jantziekero, auñera batek artu litzakean eskapularioak, bedeinkapen bearik ez dute. 3.^{en} Eraman oi diran bezela gau ta egun eramatea.





Gure Ama Birjiñaren Bezperak

SAN LUCAS I.

MAGNIFICAT ANIMA MEA.

I. Nere gogoak
Jauna goratzen du.

II. Ta nere ani-
mak Jaunaren Sal-
batzaileagan atse-
gin zuan.

III. Bere mirabe
onen txikitasuna be-
giratu zulako, ta o-
raindik bedeinkatua
esango dirade gi-
zaldi guziak.

Zazpi Igandeak G.—18.

IV. Gauza aundiak egin dizkidalako altsua danak, eta santua bere izena.

V. Eta bere erukia gizaldirik-gizaldi, berari bildur dutenen gañean.

VI. Al erakuspena egin zuan bere besoaz: aróak isurizituan bere biotzarren asmotik.

VII. Altsuak beren jauntasunetik kenduzituan, eta goratuzituan txikiak.


VIII. Gosetiak on-

dasunez bete zituan:
eta aberatsak ezer
gabe utzi zituan.

IX. Israel, bere eñi
autatua, artu zuan,
bere eñukia oroitu-
rik.

X. Berak itz egin
zuan bezela gure a-
sabai: Abrahan ber-
e ondorenguai edo-
noiz.

Aitari ta Semeari
ta Espiritu Santuari
lenendik zan bezela
orain eta betikota-
sun guzietan zoria.
Alaxen.





GURUTZE-BIDE

edo kalbarioko egipen Santua

*Jesus ona, barkatu
Pekatu nereak:
Nik dizkitsut oyetan
Beritzen nekeak.*

ESKEINTZA

Zure miñak nai ditut
Zurekin negartu,
Negar oyek ditzazun
Goguan zuk artu.
Nitzaz eta nereaz,
Jauna gogoratu,
Purgatoriokoaz
Ezta ere aztu.




LENBIZIKO GELDIALDIA.
Jesus iltzea erabaki dute.

Jaungoiko aundiaren
Seme Jaungoikoa,
Pilatos'en agintez
Iltzera dijua.

Eta nik, berituaz
Nere gaizki egiñak
Beritzen ditut beti
Jesus'en samiñak?

Aita gurea, Agur' Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



BIGARREN GELDIALDIA

Jesus'ek bizkar gañean gurutzea
darama.

Sorbaldan dualarik
Bere gurutzea,
Jesus'ek artutzen du
Golgota bidea.
Ez aldagokit neri
Oñi jañaitzea,
Nere bide okeñak
Gaurtik zuzentzea?

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



IRUGARREN GELDIALDIA

Jesus lenbiziko aldiz lurrera
erortzen da.


Gurutze astunaz da
Jesus luñeratzen,
Luñetikan zerura

Gu jasotzeaŕen.
Eta bertatik ez det
Nere griña txañen
Bide guziz galdua

Utziko lenbaitlen?

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



LAUGARREN GELDIALDIA
Jesus'ek bere Ama txit santa
arkitzen du.

Eromatar soldadu
Ta judu artean,
Amak arkitutzen du
Kañika batean.
Eta nik samintasun
Anbaten artean
Zaitu, Maria, jartzen
Pekatu egitean!

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.
Jesus ona....,



BOSGARREN GELDIALDIA
Jesus'i gurutzea eramaten la-
guntzen diote.

Simon Zirine'koa

Zayo lagun eman,
Bildur' dira, aldapak
Lenegi il dezan.

O zer gogoñkeria

Jesus'i diodan,

Nere ordez josirik

Ikusi nayeanean!

Aita gurea, Agur' Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



SEIGARREN GELDIALDIA

Beronikak Jesus'i arpegia garbitzen dio.

Beronika'k garbitu

Zion arpegia;

Salbatzaleak dio

Utzi ezaña.

Eman zaidazu zure

Laguntza aundia,

Biotzean utzirik

Bere iduria.

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



ZAZPIGARREN GELDIALDIA

Jesus bigarren aldiz gurutzear-
ekin lurrera erortzen da.

Zeruen Éregea

Beñiro luñera

Pekatuaren pixuz

Emen erortzen da.

Eta ni beti nabil

Gaitzetik gaitzera,

Alegindurik gabe

Damuz jeikitza?

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....




ZORTZIGARREN GELDIALDIA
Jerusalen'go alabai itz egiten
diote Jesus'ek.

Jerusalen'go alabak
Ez nitzaz negarík,
Bai zuen gain datozen
Zorigaitzagatik.
Au ba-dio Jesus'ek
Jerusalen'gatik,
Nola ez naiz esnatzen
Nere lo-zoñotik?

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



BEDERATZIGARREN GELDIALDIA
Jesus gurutze santuarekin iruga-
rren aldiz lurrera erortzen da.

Irugañen aldian

Emen luña jo du,
Ba-dute nere okeñak

Oñenbeste pixu.


Salbatzañea zañez

Jaso nai ba'dezu,
Zure utsegiteaz

Damu beañ dezu.


Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



AMARGARREN GELDIALDIA
Jesus'i soñekoak kentzen
dizkate.

Zerua eta luía
Dituena jazten,
Kupidarikan gabe
Dute erantzitzen.
Eta nik gaizbideak
Ez ditut utzitzen!
Au nik ikusiañen...
Ez naiz damuz iltzen?
Aita gurea, Agur' Maria ta gloria.
Jesus ona.....



AMAIKAGARREN GELDIALDIA
Jesus gurutziltzaten dute.

Ezurak azkaturik
Beren giltzetatik,
Zintzilik agiri da
Iru iltzetatik.
Eta ez det josiko
Nik nere biotzik
Iñoiz aldendu ez dedin
Jesus'enagandik?

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.
Jesus ona...*



AMABIGARREN GELDIALDIA
Jesus gurutzean iltzen da.

Ilunik eguzkia

Ta luía daídaraz,

Bizitzaren jabea

Iltzen ikusteaz.

Ez det beaí aítu

Ni ez biguntzeaz,


Aíriak leíturikan

Ni ez leítutzeaz?

Aita gurea, Agur María ta Gloria.

Jesus ona.....

Zazpi Igandeak G. —19.



AMAIRUGARREN GELDIALDIA
Jesus'en gorputz illa bere Amar-
en besoetan dago.

Maria'k magalean

Dauka gorputz iĭa,
Saĭitan laztanduaz

Aĭren arpegia.

Nik det il Seme Jesus,

Nik det il, Maria,

Baĭan ondo damu naiz,

Ama erukaĭria!

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....



AMAL AUGARREN GELDIALDIA
Jesus'en gorputz illa lurpetzen
dute.

Magaletik amari
Kendutzen diote,
Usaiz likurtaturik
Obiratzen dute.

Eraman du Maria'k
Amaika naigabe,
Ez ni uzteagatik
Zerurikan gabe!

Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.

Jesus ona.....

AZKENA.

Naigabe oetatikan
Izazu erukia,
Jauna, eta indazu
Betiko bizia.

Zugandikan det uste
Ontzeko bidia,
Zugandik izango det
Zeruko zoria.

*Bost zaurien adoraziorako bost
Aita gure ta bost Gloria.*



EROSARIO SANTUA.

Era bitara da e'rosario-
oa, batari deritza Ama
Birjiñaren *koroa*, zazpi
ama'ekorekin, gañera bi
Agu' Mari, eta azkenean
Aita Santuaren izenean
Aita gure bat eta Agu'
Mari bat, au bera esan da
irabazten dute Pranzisko
santuaren iru ordeneta-
koak barkapen osoa.

Besteari deritza *errosarioa*, eta onek ditu amabost amaíreko, ta esan ditzezke amabostak bata bestien urrena, edo bosnaka edo banaka. Eta dan bezela dala, amabostak esanezkero irabazten da barkapen osoa.

Baña au irabazteko esan beaí da bai bata ta bai bestea, gogo aundi aoz ta biotzez, ez erdi lo, gogo gabe ta burua beste lekutan dala; betaz, eta itzak ortz-tartean nastutzen ez dirala, itxodonaz batak osotoro esan artean besteak erantzuteko, eta eskatzen zaiola Ama Birji-

ñari, aŕen, gure bitarteko izan dedila iritxi dezagun Jesus maiteagandik beaŕ degun laguntza bere gorapenik aundienerako ta gure animaren onerako.

Onezaz gañera gogora itzazu amaŕeko bakoi-tzean egunari ta amaŕekoari dagozkion misterioak, auŕerago esaten diran bezela.





Atsegin-Misterioak.

ASTELEN-OSTEGUNETARAKO

Eri askotan, jai aratsaldetan ta ostegunean ere, ziñatu, Kontriziozko Egintza esan, ta kantatzen dituzte uringo misterioak, eta gero Aita gurea ta Agur Mariak.

Jesus onaren Ama maitea,
Laguntza dizut ezkatzen
Bostmisteriogogozbeteak
Lagun zaiguzu kantatzen;
Gogo guztiaz esango degu
Lenengo misterioa,
Zuzen gaitzazu zerura beti
Birjiña biotzekoa.



LENENGO MISTERIOA
Jaungoikoaren Semea gizon
egitea.

Zeruetatik ekañi zizun
Aingeru batek albistea,
Zugan aragiz jantziko zala
Betiko Aitaren Semea.

Guziak erantzuten dute ufengo au:

*Ama Marien amarreko au
Aita gureaz batean,
Birjiña eder maite berari
Esaten asi gaitean.*



BIGARREN MISTERIOA.

Ama Birjiñak Isabel Santari
egin zion ikustaldia.

Jainkoaz aurđun zu zoaz
[Ama
Ikustera lengusua,
Eta San Juan jaio gabea
Ezker ugariz bete da.

Aguř Marien.....



IRUGARREN MISTERIOA

Jesukristo'ren jayotza.

Jaio zanean zure Semea
Zerau neskutza utzirik,
Gelditu giñan guzti-guz-
[tiok
Ondasun gozoz beterik.

Aguŕ Marien.....



LAUGARREN MISTERIOA

Ama Birjiñaren Elizan sartzea.

Jerusalen'go Eliz santuan
Jesus eskeñi zenduan,
Eskein gaitzazu gu ere
[orain
Jaunak beretzat ar gaitzan.

Agu' Marien... .



BOSGARREN MISTERIOA

Jesus galdu ta irugarren egu-
nean arkitzea.

Galduezkero, bila zen-
[duan
Elizan zure Semea,
Poz onegatik nai ez begizu
Gu pekatuan iltzea.

Aguñ Marien.....



Atsekabe-Misterioak.

ASTEARTE-OSTIRALETARAKO.

Jesus onaren Ama maitea
Laguntza dizut eskatzen,
Bost misterio miñez be-
[teak
Lagun zaiguzu kantatzen.
Gogo guztiaz esango degu
Lenengo misterioa,
Zuzen gaitzazu zerura beti
Birjiña biotzekoa.



LENENGO MISTERIOA.

Baratza santuko Jesus'en
Otoya.

Jetsemani'ko baratza artan
Auzpez luñean jañirik.
Zegoan Jesus odolixurtzen
Biotza beriz lañirik.

*Ama Marien amarreko au
Aita gureaz batean,
Birjiña eder maite berari
Esaten asi gaitean.*



BIGARREN MISTERIOA.

Jesus'en astiñaldi ikaragarria

Bost mila zigor artu
[zituan
Gure pekatuagatik,
Zer gaitz aundia dan pe-
[katua
Jakin ezazu emendik.

Agu' Marien.....




IRUGARREN MISTERIOA

Jaunari arantzazko koroa
ipintzea.

Arantza zoñotz gogoñ ta
[latzez
Koroaturik burua,
Nunbait Jesus'ek kendu
[nai zigun
Gure aundiuste itxua.

Aguñ Marien.....

Zazpi Igandeak G. — 20.




LAUGARREN MISTERIOA

Jaunak gurutzea eramatea.

Gurutze aztun bat lepoan [ta
Lapur gaiztoen erdian,
Eraman zuten Jesus mai-
[tea
Kalbario'ko bidean.

Agur Marien.....



BOSGARREN MISTERIOA

Jesukristo'ren gurutzeko
eriotza.

Iltzez josirik gurutze
[artan
Eman du Jaunak bizia,
Gure animak galetzitezen
Ikusi zuan guzia.

Agu' Marien.....



Zorion-Misterioak.

IGANDE, ASTEAZKEN TA LARUN-
BATERAKO.

Jesus onaren Ama maitea,
Laguntza dizut eskatzen
Bost misterio zorizko oek
Lagun zaiguzu kantatzen;
Gogo onenaz esango degu
Lenengo misterioa,
Zuzen gaitzazu zerura beti
Birjiña biotzekua.



LENENGO MISTERIOA.
Jesukristoren piztuera.

Miñen ondoren, Ama
[maitea
Ikusten dezu pizturik,
Īlen artetik zure Semea
Eguzki eder egiñik.

*Ama Marien amarreko au
Aita gureaz batean,
Birjiña eder maite berari
Esaten asi gaitean.*



BIGARREN MISTERIOA.

Jauna zeruetara igotzen da.

Beñogei egun emen e-
[ginda
Zerura igo danean,
Ondo pozikan artu du
[Aitak
Bere eskuiko aldean.

Aguñ Marien.....



IRUGARRÉN MISTERIOA.

Espiritu Santuaren etorrera.

Espiritu Santua ber-
[-bera
Sutan zerutik zetoñen,
Apostoloak eta besteak
Maitetasunez betetzen.

Aguñ Marien.....



LAUGARREN MISTERIOA.

Ama Birjiña zerura igotzea.

Jesus maiteak ikustearen
 Zeruan zoriondurik,
 Ara zaramaz gorputz ta
 (anima
 Aingeruz inguraturik.

Aguř Marien.....



BOSGARREN MISTERIOA.

**Maria txit Santaren zori
aundia.**

Irutasunak jañi zinduan
Seme Jaunaren aldean,
Beti ta beti idukitzeko
Beste guzien gañean.

Aguñ Marien.....



Ama Birjiñaren Letania

EUZKERAZ.

Jauna, eruki zaitte.

Kristo, eruki zaitte.

Jauna, eruki zaitte.

Kristo, adi gaitzazu.

Kristo, entzun gaitzazu.

Zeruko Aita Jaungoikoa,

Eruki zaitte gutzaz.

Munduaren Erosle Seme

Jaungoikoa,

Eruki zaitte gutzaz.

Espiritu Seme Jaungoikoa,

Eruki zaitte gutzaz.

Jaungoiko bat zeran, Irukoitz

Santu,

Eruki zaitte gutzaz.

Maria Deuna,
Jaungoikoaren Ama Deuna,
Kristoren Ama,
Jainkozko eskañaren Ama,
Ama guztiz garbia,
Ama guztiz txukuna,
Birjiña zeralarik Ama,
Kutsurik gabeko Ama,
Ama soñtzetik garbia,
Ama maitagaña,
Ama añaña,
Esan oneko Ama,
Egilearen Ama,
Salbatzailearen Ama,
Birjiña guztiz begiratu,
Birjiña goragaña,
Birjiña gogoragaña,
Esku aundiko Birjiña,
Birjiña biotz biguña,
Birjiña zintzoa,
Birtute guztien begirakaya,
Jakintasunaren eserlekua,
Gure poz emalea,
Gogozko ontzia,

Errege ezazu gutzaz

Ontzi begiragaña,
Oneraspenaren ontzi aundia
Añosa añaña,
Dabid'en Toña,
Bolizko Toña,
Urezko etxea,
Batasun kutxa,
Zeruko atea,
Egun txintako Izaña,
Gaxoen osasuna,
Pekatarien babestokia,
Laituen poza,
Kristauen laguntzalea,
Aingeruen Eregiña,
Erkaben Eregiña,
Igarlien Eregiña,
Apostoluen Eregiña,
Martirien Eregiña,
Aitorlien Eregiña,
Deun guztien Eregiña,
Jatorizko kutsu gabe sortu-
tutako Eregiña,
Efosario deuneko Eregiña
Pake Eregiña,

Hiregufezazu gutzaz.

Munduko pekatuak kentzen
dituzun Jaungoikoaren bil-
dotxa,

Barka eiguzu, Jauna.

Munduko pekatuak kentzen
dituzun, Jaungoikoaren bil-
dotxa.

Entzun gaitzazu Jauna.

Munduko pekatuak kentzen
dituzun, Jaungoikoaren bil-
dotxa.

Gutzaz erruki zaitte.

V. Jaungoikoaren Ama Deu-
na; gure alde ezkatu zazu.


R. Kristoren aginduak iritxi di-
tzagun.


ARKIBIDEA.


	<u>Orriak</u>
Lenengo igandea.	9
Gogoraldiak	13
Olatu artean galtzeko zorian .	43
Bigarren igandea.	53
Jesus-aurrearen seaska	65
Irugarren igandea	72
Beaitsuari laguntzen dionak beaitsuagan Jainko lagun- tzen du	82
Laugarren igandea	87
Jaunak gorde zaitzala, gurutze maitagarria	97
Bosgarren igandea	102
Jesus, Maria ta Jose'ren era- mankisuna	112
Seigarren igandea	117
Bizitz santu baten ondorengo irabazpena	124
Zazpigarren igandea.	128
Seme bat galduta, Jose San- tuaren bitartez arkitua . . .	141
Meza santua	146
Meza santuaren ondorengo otoitza	205
Eskeiak ematea	207

Il bakoitzaren 19'garren egu- nean Jose Santuaren ize- nean egin ditekena	211
Eskaera.	218
Eskaera.	224
Jose Santuaren aldekoak	224
Eskaera.	226
Jose Santuari beste eskaera bat.	227
Jose zoriontsuari eskaerak.	231
Otoiztxoa	236
Azken-aguía	238
Jose Santuari eskaera	239
Jose Santu zoriontsuaren ize- nean aitortu ta Jauna ar- tzeko bidea.	240
Pekatuak gogoratze-ondoren- go ta aitortze-aufeko es- kaera.	242
Aitortze-ondorengo eskaera	251
Jauna-artzea	254
Jaun-artu ondoan.	264
Elizako irakasle Akino'tar To- mas santuaren eskaera	265
Eskaera.	267
Jose Santuaren eskapularioa.	269
Gure Ama Birjiñaren Bez- perak.	273
Gurutze-bide edo kalbarioko	

egipen Santua	277
Eñosario Santua	293
Atsegín-Misterioak	; 296
Atsekabe-Misterioak	302
Zorion-Misterioak	308
Ama Birjiñaren Letania	314









LIBRARY OF THE